


# ...eta Kitto!

2016-IX-6

983 zkia.



Opor osteko  
sindromea?  
Arraten duzu  
errezeta!

## matrikula ZABALIK

### 2016/17 EUSKARA IKASTAROAK

**EUSKALDUNTZE OROKORRA**

(aurrez aurrekoa edo autoikaskuntza)

**XEDE BEREZIKO IKASTAROAK**

(aurrez aurrekoa)

- B1, B2, C1 (EGA) eta C2 mailak
- Hizkuntza eskakizunak: IVAP, Irale, Osakidetza



Sostoa 1, 1. solairua

Telefonoa: 943 201 379

[eibar@aek.eus](mailto:eibar@aek.eus)

# EIBARKO ENERGIA FERIA

IRAILAK  
16 - 17  
UNTZAGAN

**SARRERA !  
DOAN !**

## ORDUTEGIA

<b>16</b>	9:00 - 14:30 16:30-19:30	<b>17</b>	10:00 - 14:30 16:30 - 19:30
-----------	-----------------------------	-----------	--------------------------------

## EGUN OSOAN ZEHAR

HONAKO STANDAK BISITATZEKO AUKERA: EIBARKO UDALA, EHU, ARMERIA ESKOLA ETA USURBILGO LANBIDE ESKOLA, TEKNIKARIAK KONTSULTAK ERANTZUN AHAL IZATEKO, INFORMAZIO MAHAIA (GASA ETA ARGINDARRA), IBILGAILU ELEKTRIKOA PROBATZEKO AUKERA, ZOZKETAK...

## BAITA EKINTZA BEREZIAK ERE:

### OSTIRALA 16

### LARUNBATA 17

**16:30-17:30** BISITA GIDATU IREKIA

**11:00-13:30** UMEENTZAKO  
TAILERRAK

**17:00-19:00** UMEENTZAKO  
TAILERRAK

**11:30-12:30** BISITA GIDATU IREKIA

**17:30-18:30** HITZALDIA. FAKTURA  
ELEKTRIKOA . GOIENER

**17:00-19:00** UMEENTZAKO  
TAILERRAK

**18:30-19:30** HITZALDIA. MUGIKORTASUN  
ELEKTRIKOA. EHU

**17:00-18:00** BISITA GIDATU IREKIA

**18:00-19:00** BISITA GIDATU IREKIA

BABESLEAK

KOLABORATZAILEAK



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Ingeniaritza eta Obitu  
Hidrolikoak eta Departamentua



**ARGITARATZAILEA:**  
...eta kitto! Euskara Elkarte.

**HELBIDEA:**  
Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:**  
943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:**  
erredakzioa@etakitto.eus  
komunikabideak@etakitto.eus  
publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:**  
elkartea@etakitto.eus /  
normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:**  
Ana Aizpurua, Itziar Albizu,  
Jose Luis Gorostegi, Silbia  
Hernandez, Uxue Igarza  
eta Haizea Arizaga.

**ADMINISTRAZIOA:**  
Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:**  
Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:**  
Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA  
MAKETAZIOA:** J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:**  
Leire Iturbe eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:**  
Juan Andres Argoitia  
eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:**  
Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:**  
Leire Iturbe

**BANAKETA-ARDURADUNA:**  
Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.150 ale.

**INPRIMATEGIA:**  
GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.  
**ISSN:** 1132 - 1679

("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen  
aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien  
erantzunkizunik)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak  
eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



EIBARKO  
UDALA



GIPUZKOAKO  
FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA (HIZKUNTZA  
POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## Herriari Champions eta chopped

Eibar foball taldea lehen mailara igotzeak bizitza sozialaren zati handi bat baldintzatu du eta eztabaida ugari eragin ditu; hasi herriaren ekonomiarengan izandako eraginarekin eta amaitu zelaia handitzeko lanekin, tartean reggaetoiaren erritmo-ra egindako ospakizunak ahaztu barik.

Baina, zalantza barik, zelaia handitzeko egiten ari diren lanek eibartar guztiak lotsarazi beharko gintuzkete.

Egoera inmoraltzat jotzea neurri batean subjektiboa izan liteke, baina gertatzen ari dena erabat ilegala dela, horretan ez dago eztabaidarako tartarik. Ez bakarrik lanaldien iraupenagatik, baizik eta 2002az geroztik Gipuzkoako eraikuntzaren hitzarmenak, lehen artikuluan jasotzen duenez, gure probintzian egoitza soziala duten enpresetan aplikatzen haratago, hitzarmenean jasotako baldintzak bertan lan egiten duten eraikuntzako langile guztiengana zabaltzen dira.

Helburua argi dago: grada lehenbailehen eta ahalik eta merkeen amaitzea. Bost axola langileek, gehienak portugesak, 12 orduko lanaldiak egitea 1000 euro baino gutxiago kobratuta.

Oso eroso egiten zaigu euren herriko batzbesteko soldata baino gehiago jasotzen ari direla eta eraikuntzan horrelakoak ohikoak direla pentsatzea. Sarreren prezioa igotzen ez diguten bitartean dena da zilegi. Erromako Coliseoa ez zuten ba esklabuek eraiki? Herriari ogia eta zirkua!

Zalantza barik, gure politikoei aipamen berezia merezi dute. Barrena behar da gero zorritzarrez errepikatzen den errealtatearen aurrean ez ikusiarrena egin eta joaten zareten pleno eta lan batzorde bakoitzeko kobratzeko.

Ez diot nik politikoki bati adieraziko moralitateak poltsikoaren sakontasuna baino handiagoa izan behar duenik (ez naiz horren inuzentea), baina legalitatea betetzen dela zaintzeko eskatzea... hori bai behintzat! Are gehiago tartean "gure dirua" dagoenean.

Baliteke hemendik urte batzuetara, gure seme-alabei lanaldi amaitezinen truke soldata miserableak eskaintzean eta, gainera, "hauxe da dagoena, ez baduzu nahi 10 zain dauzkat" esaterakoan, agian, barrarik agian, beste aldera begiratu izanaz damutzea.

Tira, segi foballa ikusten!

Ion Garate

## Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**LARRI.-** Gorputzaren preminak adierazteko atzizkia. "Garagardo mordua eran dau eta txixalarrixari eutsi eziñik dabil". / Handia, garrantzi handikoa. "Batez be atzenengo bagoiak hartu eban kolpe larrixena". / Latza, lodia, ez zehea. "Errekatiko harri larrixa ekarri bihar destazu". / Estuasunean, heldu ezinik. "Larri ibilli da, baiña azkenian paketia badoia Bilborutz, trenan martxan zoiala bentanatik zihar sartu bihar izan badau be". / Erdi-gaixorik, ondoezik, osatu ezinik; gehixenetan tripalekin. "Hárek perretxikuak jan genduazenetik, larri nabil". / Lodixa, latza, ez fina. "Honek kaferrotionez zeozer badaka: erain eta erain baiña oso kafe larrixa eixotzen dau".

## astean esanak

"Ez duzu bere buruari turista deitzen dionik topatuko sekula: turistak beti dira besteak. Eta norberaren bidaiatzeko modua beti da duina, jasangarria eta akatsik gabea. Guztia ilusio bat da, ordea, etxetik irteteko ahalmena dugun guztiok garelako nahiko antzekoak. Marrakexko haurrek eta Habanako hitzontziek frogatzen dute hori, txanpon pareia denoi eskatuta, yanki despistatuei eta gu bezalako ibiltari jantziei, inongo bereizketarik egin gabe. Turistak geuretakoak direla onartu eta adeitasunez tratatzea geratzen zaigu"

(DANEL AGIRREO, KAZETARIA)

"Gaur egun askorentzat bizitzako momentu gogoangarriek ez dute ezer balio, baldin eta onean bertan beste askori erakusten ez badizkiete. Horientzat garrantzitsuena ez da bizi izandakoa, erakutsitakoa baizik. Hori gabe ez dago disfrutatzerik. Horren erruz, ezin dute onea osotasunean bere horretan bizi; eta are gehiago, une horri behar duen balioa emateko ezinbestekoa dute beste batzuen onespena, askotan ia ezagutzen ez dituztenena. Gigak, izenak, 'atseginak' pilatzea besterik ez dute buruan gaur egun askok eta askok. Hezur-haragizko lagunak edo birtualak nahiago?"

(IKER BARANDIARAN, KAZETARIA)

"Euskeraren plus-aren inguruan betiko leloarekin jarraitzen dugu. Munduko ekonomilari, abokatu edo sendagile onenak euskal administrazio publikoan lan egin dezake gaztelera eta euskera jakin gabe? Normala denez, ez. Baina zergatik ez? Gaztelerez ez dakielako. Euskera jakin barik? Orduan, bai. Badut proposamen bat hizkuntza biak lanean erabiltzeko, gaztelera baztertu barik eta euskera meritutzat ez jotzeko: oposizio guztietan azterketa EAeko bi hizkuntza ofizialetan egitea eta onenak irabaz dezala. Zeozer jakiteak (euskera, esaterako) ez luke zertan beste zeozer (gaztelera) ez jakiterik ekarri beharko"

(GORKA BARRENETXEA, EHUko IRAKASLEA)



**EVA PEREZ  
DE ALBENIZ**

DEBABARRIENKO ESPERIENTZIA ESKOLAKO KOORDINATZALEA

## Zaintzaile ezkutuak

Aurtengo abuztuan oporrak bai, baina Eibarren egotea ere tokatu zait tarteka. Eta soziologoa edo estadista ez naizen arren jendea begiratzea gustatzen zait. Nolakoak garen, zer egiten dugun, janzkera, ibilkera. Eta jakingo duzue Eibar abuztuan guztiz aldatzen da, baita bertan dagoen jendea eta bere ohiturak ere.

Eibarko erroldak dioenez, gure biztanleriaren %25 65 urtetik gorakoa da. Niri iruditu zait abuztuan portzentaje hori igo egin dela. Jubilatuz gaste askok urte guztia daukate oporretan joateko, prezioak merkeagoak dira orduan eta zertarako dirua xahutu? Eta nagusi nagusiak, horietako asko ez dira oporretan joaten, ez dutelako nahi edo ezin dutelako. Eta menpekotasuna tartean dagoenean pertsona bera Eibarren da eta baita bere zaintzailea ere.

Zaintzaile asko ikusi ditut, langileak edo senideak. Beharbada ni egoera berean egoteak benetan direnak baino gehiago ikustea eragin dit; badakizue, haurdun zaudenean bezela, bapatean mundu guztia haurdun dagoela iruditzen zaizula.

Kontua da, egun hauetan zerataz konturatu naizela. Badaudela beste zaintzaile batzuk ere ezkutuak dabilzanak. Terraza berdinean hiru egunetan jarri ezkerok ikusten duzu kamareroak ondoko mahaiko emakumea eta zaintzailea izenez ezagutzen dituela eta bere osasunaz galdezka ari dela. Edo zelan harakiñak bakarrik bizi den Pakitari bere egunerokotsunaren "kontrola" egiten dion erostera doan momentuan. Eta ileapaindegikoak Lutxiren alabari deitzen diola desorientatuta agertu zaiolako ilea moztera.

Eta herri baten bizitzeak dauzkan abantaila horiek ez ditugu ahaztu behar eta zaintzaile hauek zaintzea ere merezi duela uste dut.

## Mercadona zabalik, Stradivarius urrian

Abuztuaren 31n zabaldu zittuan atiak Mercadonak Otaola etorbidian, lehen Teknikerrek bete eban tokixan. Dendiak 1.500 metro karratu ditu, hiru pisutan banatuta: saltokixa behekuan dago eta beste bixetan, barriz, 150 automobillendako aparkalekuak egin dittue. Valentzian (han dago egoitza zentrala) formaziñua jaso daben 40 bihargiñekin ekin detse lanari eta dendia astelehenetik zapatara zabalduko dabe, 09:15etik 21:15ak arte. Euskadin guztira 10 denda ditu Mercadonak, euretako bost Gasteizen.

Bestalde, Toribio Etxebarria kalia, El Corte Inglés egon zan tokixan, 1.000 metro karratu izango dittuan Stradivarius dendia urrian zabaltzeko biharrian dihardue. Hasieran bakarrik andrendako erropak salduko dittue, baiña otsailetik aurrera gizonezkuendako erropia be saltzeko asmua dake la aurreratu dabe. Stradivariusek, T. Etxebarria 20xan zabalduko daben dendiaz aparte, beste hamar denda ditu Euskal Herrixan.



**439 odol-emote egin dira Eibarren urtiaren lehen 6 hillebetietan. Tarte berian 373 donaziño egin dira Elgoibarren, 249 Deban, 112 Soraluzen, 57 Mutrikun eta 41 Mendaron. Gurian donante gehixenak 50 urtetik gorakuak dira: iaz 247 gizonezkoak eta 181 andrazkoak emon eben odola.**

## Astronomuen omenaldixa Javier Gorosabeli

**Jabier Gorosabel eibartarra omendu eban Espaiñiako Astronomia Alkartiak**, uztaillaren 18tik 22ra bittartian Bilbon egin eban XII. Topaketa Zientifikuan. Oin arte Euskal Herrixan egin dan astronomia topaketarik haundixenak 350 astronomia-ikerlari inguru bildu zittuan eta

bilkuraren azken egunian omendu eben eibartarra. Ekitaldi hungigarrixa izan zan eta zati bittan banatu eben: Jose Manuel Vilchez ikerlarixak moderatutako saiuan Ana Nicuesa Guelbenzuk eta Jens Hjorth-ek astrofisiko eibartarrak zientzia alorrean egindako ibilbidia aztertu



*Gorosabeltarrak on dala urte batzuetako irudixan.*

eben. Ondoren, Itziar Garate, Miguel Mas Hesse, Alberto Castro-Tirado, Benjamin Montesinos, Antonio de Ugarte, Ruben Sanchez eta Agustin Sanchez Lavega zientifikuak hartu eben hitza Gorosabelen gizatasunaz eta haren izateko modu apartekuaz jarduteko. Amaitzeko Javier Gorgas (SEAREN Presidentia) eta Jose Manuel Vilchez (IAAko Zuzendari-xa) zientifikuak egin eben berba eta Gorosabelen famelixari oroigarrixa emon zetsen.

## Barrenako jaixak datorren zapatuan

Azken urtiotako martxari jarraituta, Barrena auzokuak euren jaixa ospatuko dabe irailiarekin batera. Oinguan 10ian izango dabe eguna. Eguerdiko 12:30an paella-lehiaketia hasiko da eta handik bi ordura, 14:30an, sarixak banatuko dira eta, jarraixan, herri-bazkarixari ekingo jako. Bazkaldu ostian, arratsaldeko 17:00etan, mus relanpago txapelketia jokatuko da. Amaitzeko, bestalde, beste lehiaketa bat hasiko da 19:00etan, oinguan patata-tortillena. Ordubete geruago, 20:00etan, tortillok epai-mahaixari aurkeztuko detsez eta, jarraixan, afari-merienda egingo dabe tortillekin.

Barrenako jaixok Azittainguen errepikapenian dake aitzindarixa, oin dala hamarkada



batzuk egitten ziranetan. Azittainguak, berez, abuztuaren 15ian ospatu dira beti; baiña, jende asko halako fetxetan oporretan zeguala-eta, iraillian jaixen errepetiziñua egi-ttiari ekin zetsen. Aurten be ondo ospatu zeben Amabirjiñaren eguna abuztuaren 15ian eta hor izan ziran Baltzolatarrak, Elgoibarko trikitilarixak, txistularixekin batera; eta, umiendako hainbat jokorekin batera (zakulasterketak, lokotx-biltzia), Jose Martin Bustinza "Tubi" herri-kirolarixak erakustaldixa eskindu zeban.



## Euskeraz primeran! zozketako irabazliak

Julixuaren azken egunetan etorri ziran 100 euroko erosketa-txartelaren billa udako merkealdixen azokaren harira egindako zozketako irabazliak, Malen, Katrin eta Paule, amatxo Ana Aranberri lagunduta. Euskeraz primeran! kanpainaren barruan, aurtengo Factoring-ean "photocalla" ipiñi eban ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta argazkixa egin eben guztien artian zozketatu eben Eibar Merkataritza Gune Irekiak emondako erosketa-txartela. Zorionak!

## autuan

### hur errefuxiatuentzako eskola material bilketa

Oñatiko Hotz taldeak Motxila Solidarioak bidaliko ditu iraila amaieran Greziako kanpalekuetara. Eibarren Baisi kafetegian (Urkizu 11) jasoko dira motxilak irailaren 14a baino lehen. Zer sartu: 2 galtzerdi pare berri, pare bat kulero edo kantzontzilo berri, 2 koloreztatzeko liburuxka edo idazteko kuaderno, margoak, negurako arropa (guanteak, bufanda edo txapela), jostailu edo detailetxo bat, marrazki, argazki edo eskutitz bat. Motxila bakoitzak sexu eta adinez bereiztua egon behar du banaketa ongi egin ahal izateko. Animatu eta gerratik ihesi dagoen hur bati eman irribarre bat!!!

### Hauteskunde-buleguak

Irailaren 25erako Eusko Legebiltzarrerako hauteskundiak deitu dittuela eta, posta bidez botua emon nahi dabenak hillaren 15era arte eukiko dau aukeria. Laguntasuna bihar izanez gero, alderdi politikuen buleguetara jo leike: Batzokixan, astelehenetik barixakura hartuko dabe jendia, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 19:30era. Gaur 20:00etatik aurrera, barriz, EH Bilgunea zabalik egongo da Torbio Etxebarria kalian (Galarreta zapatadenda aldamenian). Eta alderdi sozialistak Untzagako bere egoitzan eskinduko dau laguntasuna.

info@gerritek.net  
www.gerritek.net

## SOLUZIO INFORMATIKOAK

Marka guztietako zerbitzu teknikoa eta salmenta

Neurrira egindako software-aren garapena

**Gerritek**  
INFORMATIKA

Txaltxa-Zelai, 4-6 Tel: 943-033892



Funeraria·Ehortzetxe

**Mugica**

EIBAR



Beilatokia  
Funeuskadi Eibar:  
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:  
SIGMA Industrialdea  
(Olasoko hilerriaren ondoan)

Bulegoa Eibarko  
erdialdean



24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51

www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze  
Taldea

GRUPO  
**Funeuskadi**

## Konpontze eta barritze lanak herrixan

Herrixaren itxuria goitik behera aldatuko daben obrak izan barik be, Eibarren hainbat konponketa txiki egitten dihardue egunotan. Holan, abuztuaren erdialdera espaloietako baldosak kanbixau zittuen Untzagan, Guridi eta La Eibarresaren aurrian, eta Egogain kalia. Uztaillian hasi eta abuztu osuan Urkizu eta inguruak (urzerbitzuak hobetzeko biharra), Eibarko Bizikleta plazaren reurbanizaziñuak (lurra inpermeabilizatzeko eta gaiñerakuak) eta Ipuruako foball-ze-laixak (trafikua aldatzia be eragin dittuan lanak) hartu dittue Eibarko lan gehixenak. Aurrekuekin batera, hainbat pausoren gora-jasotzieren ekin jakue: oin arte 40 genduazen Eibarren eta oin beste 23 gehittuko jakuez, zirkulaziñorako hain agresibuak ez diranak guztiak. Romualdo Galdos, J.A. Gisasola eta Urtzaile kalia eta Errebalen eta J. Etxeberriaren arteko gurutzebidian egindako lanekin hasittako prozesuari honako kalia eta egingo diranak jarraituko detsez: Barakaldo 15ian, Txaltxa Zelai 18xan, Arrate Bide 17xan, Iparragirre 12xan,

Miguel Aginaga 5ian, Barrena 38xan, Armagin 14an, San Andres paseuan, Ardanzara juateko isletan, Urkizu 28-30ian, Legarre-Gain 16xan, Ubitxa 16xan, Jardñeta 15 eta 19 artian, Errekatxu 1an, Sansaburu 2xan, Urki 21ian eta Untzaga plazan.

### Hurrengo egunetako asfaltatziak

Bestalde, Udalak asfaltatze lanak etara dittu lizitaziñora, 140.000 euroko aurrekontuarekin eta bost as-tetan amaitzeko konpromisuarekin. Hórrek biharrok 5.300 metro karratu hartuko dittue honako tokixetan: Amaña (14 zenbakittik 24ra) Wenzelao Orbea (1-12) eta T. Anitua (24-31) kalia eta, Urkizun (11) Zubigain aurreko autobus geltokixan, Txontan (5-9 eta 40-46) eta Urkin (19-27). Eta badago Isasiko espaloia (21 zenbakittik 39ra doiana) zabal-tzeko asmua be; horrerri lotuta udalak lehiaketara etara dau 25 aparkaleku egitteko proiektua, 180.000 euroko aurrekontuarekin, eta bi hilla-bete eta erdixan, datorren urtiaren hasierarako amaitzia espero dabe.

*Errebalgo eta Eibarko Bizikleta plazako lanekin jarraitu dabe udan be.*  
**Silbia**



## Enpresen lehiakortasuna hobetzeko laguntzak

Udalak enpresen lehiakortasuna hobetzeko azterlanak egitteko emoten dittuan laguntza jaso nahi dabenak, irailaren 30era arte izango dau eskaerriak aurkezteko aukeria (Pegoran, udaletxeko beheko solairuan). Udalak hirugarrenez abiarazi daben programaren barruan diruz-lagundutako azterlaneri esker enpresen lehiakortasuna hainbat arlotan hobetzia billatzen dabe. Udalak enpresa txiki eta ertainendako diru-laguntza programiaren deialdixa egin eta hillebetera, sei enpresak aurkeztu zittuen euren proposamenak eta proiektuak programan parte hartu eta diru-laguntzak jasotzeko asmuarekin: Jaz Zubiaure, ABC Compresores, Industrias Mail, Beltran Ascensores y Montacargas, Urko Tools eta Berezi Lantegiak.

## Aldaketak autobusetan

Irailaren 1az geroztik neguko ordutegixa sartu da indarrian Lurraldebusek eskintzen dittuan zerbitzuetan. Bestalde, Mendaroko ospitalera eta Debara juateko autobusetan (Euskotrenen Soraluze-Ondarroa ibilbidia betetzen dabenetan) ez dabe kanbixorik egin, oin arte behintzat. Eta zapatu gabetan Eibar eta Soraluze bittarteko ibilbidia betetzen daben autobus zerbitzuari eutsi egingo detse. Informaziño gehixagorako 900 300 340 telefono zenbakira deittu leike edo, bestela, [www.lurraldebus.eus](http://www.lurraldebus.eus) helbidian begiratu.



# ZURICH

## Lejardi S.L. Aseguru Agentzia

Tel. 943 20 11 49 / Plaza Barria, 8 / Eibar

## Terrazen araudi barrixa

Irailian sartu da indarrarian terrazen normatiba barrixa, udalbatzaren proposamenari iñork ez detsa-eta alegaziñorik egin. Udal-ordenantza barrixak hainbat aldaketa eragingo ditu, bestiak beste terrazak zabaltzeko ordutegixetan: barixaku, zapatu eta jaiegun-bezperetan, maiatzaren 1etik irailaren 30era bittartian, 09:00etatik 01:30xak arte zabaldu ahal izango dittue terrazak eta gaiñerako hillebetietan, barriz, 00:30xak arte. Eta domekatik eguaztenera bittartian, 09:00etatik 00:30xak arte zabaldu ahal izango dittue (maiatzaren 1etik irailaren 30era) eta gaiñerako hillebetietan, 23:00ak arte. Herriko jaixetan, Aste Santuan, Aratostietan eta Gabonetan, ordubete luzatuko dabe ordutegixa.



Udal ordenantza barrixak hainbat aldaketa eragingo dittu.

## 26. Toribio Etxebarria Sarixak

Julixuaren 28xan banatu zittuen 26. Toribio Etxebarria sarixak, Tekniker-IK4k hartu eban ekitaldixan: ediziño honetako sari nagusixak Nebulok-ek (Enpresako ideiak/proiektuak kategorixan) eta CounterCraft-ek (Enpresa barrixa kategorixan) eskuratu dittue eta, horrez gain, WimbiTek, I+Med, Urkotronik eta Likuid enpresak be saritu zittuen ekitaldixan.



## Saharako umiak gurian oporretan

Aurten be Saharako hainbat umek euki dabe uda Euskal Herriko hainbat herrittan pasatzeko aukeria, horretara bideratuta dagan Oporrak Bakean programiari esker. Euretako hiruk, Mariem, Nebuha eta Mayubak Eibarko bi famelixakin batera pasau dittue oporrak: txixixena, Mariem, iazko moduan Isabel Bolinagaren etxian hartu dabe eta beste bi neskatillak, barriz, Idoia Aranbururen famelixarekin batera Galdonako kanpiñian egon dira. Aurreko astian etxera bueltan juan diran umiak uztaillaren 2xan aillegau ziran eta julixuaren azken egunetan alkatetzan harrerria egin zetsen. Eibar-Sahara Elkarteari eta udalak emondako diruari esker izan da posible aurten be Tindufeko errefuxiatu kanpamenduetatik hiru ume Eibarrera etortzia.



Juan Gisasola, 5 -EIBAR-  
943 20 39 59  
www.linkidiomas.com

**- INGELESA -**  
klaseak goiz  
eta arratsaldez

UME, GAZTE ETA HELDUENTZAT

**TALDE MUGATUAK**

**BAKOITZARI EGOKITUA**

**ERREKUPERAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA**

**CAMBRIDGE AZTERKETETARAKO PRESTAKETA**

**MAILA GUZTIAK**

Cambridge ESOL Exam Preparation Centre

## Gestoria Alonso

618 25 93 44  
943 20 20 17

San Agustin, 5 - behea

mcalonsoeibar@gestores.net



## Ainhoa Aldazabal (hezkidetzan aditua)

"Haurrekin jolastea, egotea, pentsatzea eta bizitzea gustuko dut"

Ainhoa Aldazabal 25 urteko eibartarra bi hilabete eta erdiz egon da Italian, bertako familia batekin bizitzen. Ez da Italiara bidaitzen duen lehenengo aldia. Bidaiatzea maite du eta orain dela 3 urte Erasmusean Siziliara joan zen. Ordutik aukera gutxi izan du italieraz hitz egiteko. Hori dela eta, familia batean murgiltzeko ideiak erakarrira, denbora luzez bi umerekin egoteko aukera oso dibertigarria iruditu zitzaion. Maletak prestatu eta hodeien gainetik hegan egitea erabaki zuen.

Lana, aisialdia, esperientzia eta bidaia nahasteko aukera izan du Ainhoak Italian.



### - Nolako izan da esperientzia?

Egunero egon naiz haurrekin. Bazuetan ni bakarrik, besteetan guraso-en konpainian. Eta askotan guraso, aitona-amona, lehengusu eta izeba-osaben artean. Hasiera ez zen bat ere erraza izan; elkarri ohitu, konfiantza hartu, bat gehiago izatea ez da egun batetik bestera egiten den gauza bat. Baina eguneroko lanaren ostean, bakoitzak bere mugak, beldurrak, desioak mahai gainean jarri eta gero oso ondo joan da. Iluntze, afari, elkarriketa ugari elkarbanatu ditugu. Jairen bat edo beste egin dugu elkarrekin...

### - Nondik nora ibili zara?

Lehenengo eta azkeneko asteak Roman pasatu ditut, bertan bizi baitira haurrak eta gurasoak. Beste bi hilla-beteak hegoaldean pasatu ditugu, Tarranto inguruan. Oso leku berezia da; turkesa koloreko hondartza ederrak dauzka, zuri-zuriak diren herri eta hiriak daude inguruan... elkarrekin egin ditugu egun pasak, iluntzeak... Leku de-xente ezagutzeko aukera izan dut: Ostuni, Alberobello, Martina franca, Monopoli... ez dago bertakoa den norbaitekin bidaiatzea baino gauza hobirik.

### - Nolakoak dira italiarrak?

Italian ondo jatea eta edatea dute gustuko. Politikaz asko hitz egiten dute eta jendarte matxista batean bizi

dira. Antzekotasun ugari dauzkagula esango nuke.

### - Lurrikara sentitu zenuen?

Lurrikara gertatu zenean gu hegoaldean geunden, eta beraz, ez genuen sentitu. Iparralderago oporrak pasatzen ari ziren senide ugari lurrikara sentitu zuten eta beldurgarria izan zela zioten. Egunetan telebistan lurrikara hau eta aurretik gertatutakoak izan dituzte hizpide (Aquila etab).

### - Zertan diharduzu oporretan ez zaudenean?

Euskal filologian lizentziatu nintzen hizkuntzak, euskara eta literatura maite ditudalako. Berriro galdetuko balidate ez nuke hautu hori egingo, baina atzera begiratu gero ez nuke egindako ezer aldatuko. Unibertsitate garairako egina nuen begirale ikastaroa eta hurrez gero urtero egon naiz begirale lanetan, bai Astixan eta baita euskal udal-ekuetan ere, Goñin. Haurrekin jolastea, egotea, pentsatzea eta bizitzea gustuko dut. Hezkidetzan aditua naiz, hezkuntza eta bizitza feminismotik soilik uler ditzakedalako. Egun, emakumeen literatura erakusten dut liburutegi eta emakume-etxeetan, literatura txokoak dinamizatzen ditut eta hilerokoari buruzko ikerketa bat egiten dihardut Skolastikan. Laster ekingo diot lanari hemen.

**GATE**

English School

Lorea Hernández Arizaga  
Ingeles Filologian Lizentziatua

Urtzaile, 8 behea  
20600 EIBAR  
605 716 717

**ITZULPEN**

**ERA GUZTIETAKO TESTUAK  
ITZULTZEN DITUGU,  
euskaratik gaztelarrera,  
gaztelerratik euskarara,  
eta ingelese-tik euskarara.**

**ZERBITZUA**

elkartea@etakitto.com



## GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2016-2017

Eider Anduaga Garcia (Oñati)  
Oihane Axpe Telleria (Bergara)



### Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak

### Zergatik aukeratu zenuten heziketa ziklo hau?

Informatika gustoko genuen eta erabilgarria dela ikusten dugulako, edonorendako da garrantzitsua mundu hau ezagutzea. Edonori pasatu dakioke argazkiak galtzea, kontraseña bat ahaztea... Gainera aurrera egin ahal, enpresen informatika zerbitzuak nola funtzionatzen duen ikusten da.

### Heziketa Ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue. Hau da, ertronken bidez funtzio profesionalak simulatzen dituzue. Zuen kasuan zeintzuk izan dira ertronkak?

Orain arte egin ditugun ertronkein bi lanpostutan egiten dena simulatu dugu, lehenengokoa zerbitzu tekniko pertsonak egiten dutena eta bigarrean sareko teknikoak egiten dutena. Pertsona hauek beraiekin lanetan izaten dituzten arazoak ezagutu ahal izan ditugu eta baita konpondu ere.

Lehenengo ertronkan informatikako zerbitzu tekniko bat simulatu genuen.

Bertan erabiltzaileek izan ditzaketen arazoak konpondu behar izan genituen adibidez borrotatu zaizkien argazki batzuk errekuperatu, memoria

aldatu, Windows berriz instalatu datuak aurretik kopiatuz, ordenagailu batetan sartu kontaseña ezagutu gabe, etabar. Eguneroko bizitzan erabiltzaileek izan ditzaketen arazoak konpontzen ibili ginen.

Bigarren ertronkan edifizio baten sarea instalatu behar izan genuen. Solairuetako ordenagailuak beraien artean konektatuz, sareko elektronika konfiguratzu eta ordenagailuak martxan jarri. Ertronka honen bukaeran, edifizio bateko ordenagailu guztiak konektatu genituen, beraien arteko banaketa eginez eta segurtasuna kontutan izanda.

### Nola baloratuko zenukete esperientzia hau?

Esperientzia positiboa da lanean zer egingo dugun ezagu-tzeko aukera ematen digulako. Praktikan jartzen dira ikasitako gauzak eta beste arazo berri batzuk konpontzera behartzen gaitu, gauza berriak gure kontuz ikasiz. Gainera teknikoak diren ikasgaietaz gain, taldean lan egiten, lanak banatzen, planifikazioak egiten, memoria teknikoak idazten eta jendearen aurrean aurkezpenak egiten ere ikasten da, eta agian azken gauza hauek dira teknikoak baino garrantzitsuagoak direnak.

[www.mondragon.edu/gmhz](http://www.mondragon.edu/gmhz)

## NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

# ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan  
energia berriztagarriak  
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa

• Ortutik mahaira: Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Orain Eibarko  
BM-n ere bagaude

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera saihestuz lortzen dugu

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • [www.zeletabaserria.com](http://www.zeletabaserria.com)

Uztailaren amaiera aldera aurreratu zutenari jarraituta, abuztuaren Euskadi-Galizia Jardunaldiak ospatu zituzten Allarizen (Ourense) eta, Francisco Garcia hango alkateak gonbidatuta, Eibar eta Ermuko alkateak eta herri bietako hainbat ordezkari han izan ziren, lehenengoz antolatu den ekitaldiaren harira prestatu zituzten jardueretan parte hartzen.

## Galiziar eta euskal kulturak bat egin zuten Allarizen

"Xornadas Euskadi-Galizia" izeneko topaketa abuztuaren 12an eta 13an egin zen. Barrixaku iluntzean Eibar eta Ermutik joandakoei ongi etorria eginda abiatu ziren jardunaldiak. Jarraian Kezka dantza taldearen eta Usartza txistulari taldearen agurra etorri zen. Haren atzetik, berriz, De Pe Feito taldeak "Himno do antigo reino do Galiza" eskaini zuen eta, jarraian, udaletxera abiatu ziren, hiru herrietako alkateen parte hartzea izan zuen ekitaldi instituzionalarekin jardunaldietako lehen egunari agur esateko.

Hurrengo egunean, zapa-tuan, goizetik ekin zioten egitaruari: Ernesto Ezpeleta "Bihurri" aizkolari eibartarraren eskutik herri kirol erakustaldia

egin zuten. Eta eguerdian sukaldaritzari lotutako jardueri ekin zieten: besteak beste, hantxe bertan momentuan prestatutako Euskal Herriko zein Galiziako hainbat jaki probatzeko aukera izan zen, Mugi Panderoa talde eibartarraren musikarekin

Eta gauean, aurtengo egitaraua ixteko, euskaldun zein galiziarrek ondo baino hobeto pasatu zuten Mugi Panderoak girotu zuen erromerian denak elkarrekin dantzan.

1960. urte inguruan gure herriko tailerrak martxa betean ari ziren eta lana soberan zegoen. Sasoi hartan Galizian bizitu zuten egoera oso bestelakoa zen eta, horregatik, askok etxetik kanpora joan behar izan zuten,



Aureskua dantzatu zuten udaletxearen aurrean.

etorkizun hobe baten bila. Eibar, Ermua eta inguruko beste herri batzuk lanera etorritako galiziar mordoak hartu zituzten: Allarizen herriko zaharrenek diotenez, urtero, uztaila amaie-

ran, Mallabia enpresako 22 autobus ailegatzen ziren, gurera beharrera etorritakoei, oporrak herrian igarotzeko. Gauzak horrela, ez da harrizkoa Eibar eta inguruari "Galiziako bosgarren probintzia" esatea.

Jardunaldiak herrien arteko lotura sendo horretatik abiatu dituzte: "Asmoa, egindako harrengatik, Galiziatik Eibar eta Ermura lanera etorritako pertsonen esker ona azaltzeko zein gizon eta emakume horiei hemengo herrien garenaren alde egindakoa aitortzea litzateke".



Baimendutako  
harategia  
**Euskal Okela**  
Carnicería  
autorizada

Bidebarrieta 20  
Tlfno: **943 20 16 69**



## Paella lehiaketa egingo da Kofradia egunean

Urteroko moduan, Arrateko jaietarako paella lehiaketa antolatu du udalak aurten ere. Lehiaketa datorren domekan, irailaren 11n egingo da, 12:00etatik aurrera Arrateko zelaian. Parte hartu nahi dutenek egunean bertan izango dute izena emateko aukera, lehiaketa hasi baino ordu erdi lehenago (11:30ean). Gehien jota 20 bikote onartuko dituzte. Lehiakideek binaka prestatu beharko dute paella (gutxienez sei lagunendako beste) eta horretarako behar dituzten osagai eta tresna guztiak (lapikoa barne) eurek eraman beharko dituzte. Antolatzaileek ordubete emango diete paellak amaitzeko eta, jarraian, epai-mahaikideak prestatutako guztiak banan-banan probatu eta onenak aukeratuko ditu: bikote irabazleak garaikurra eta 90 euro jasoko ditu, bigarren geratzen denak garaikurra eta 60 euro eta hirugarren sailkatuari, berriz, garaikurra emango diote.



Parte-hartzaileek ordubete izango dute paellak prestatzeko.

## Fibrosi kistikoa dutenei laguntzeko txosna



Hirugarren urtez jarraian, Eibarko EAJ/PNVkoek txosna solidarioa ipiniko dute zelaian, Arrate egunean, fibrosi kistikoa dutenei laguntzeko asmoz. Jeltzaleek egun osoan jardungo dabe beharrean, txorizo egosi pintxoak prestatu eta saltzen. Horrekin batera, pintxoei laguntzeko edariak ere ipiniko dituzte salgai. Txosnari esker batzen duten dirua aipatutako gaixotasun hori dutenei laguntzeko erabiliko dute. Birikei modu kronikoa eragiten dieten gaixotasunen artean, fibrosi kistikoa agertzen da maiz eta batez ere ume eta gazteak gaixotzen ditu. Eusko Legebiltzarrak 2015eko otsailean gaixotasun arraroari buruz onartu zuen adierazpen instituzionalean jasota dagoen gaitz honek hainbat kasutan heriotza ere eragin diezaiokie gaixoari. Azken urteotan Arrateko jaien aitzakiarekin hainbat elkarteri laguntzeko txosna ipini dute jeltzaleek: orain dela urte bi ELA (Esklerosi Lateral Amiotrofikoa) gaixotasunak eragindakoei laguntzeko erabili zuten txosnan bildutako dirua eta iaz, berriz, GENE gaixotasun neuromuskularren Gipuzkoako elkartekoei eman zieten dirua.

**Adolfo JAINAGA**  
Urki, 25 - 1. ezk.  
943 20 62 66

**Trikitixa eta Pandero Eskola**

**MATRIKULA ZABALIK**

**Ketesa 2010** *bulego eta kolektibitaterako instalazio osoak eta materiala*  
*altzariak, aulkiak, manparak, liburutegiak...*

**Ke 2010** **bulego materiala enpresetan banatzen dugu**

[www.ke2010.com](http://www.ke2010.com)  
[info@ke2010.com](mailto:info@ke2010.com)

**AMSTEL** **MIRARI BERRI** **AMSTEL**  
PREMIUM QUALITY

**Urkizu, 17**  
943128095

**Ogitartekoak Pintxoak Menuak**  
**Errazioak Paellak Hanburgesak**

**Mugi Panderoa** Eibarren orain dela 2 urte sortutako erromeria taldea da. Oso gazteak dira, baina ukæezina da trikitixa eta panderoa jotzeko daukaten abilezia eta kantak interpretatzeko gatz eta piperra. Kalejira eta trikipoteo askotan ibilitakoak dira, eta 2014ko Sanjuanetan taula gainera igotzeko aukera izan zutenean, asko pentsatu gabe eta ia ezer prestatzeko astirik gabe, instrumentuak hartu eta Errebalgo txosnaguneko denak dantzan jarri zituzten. Orduetik aurrera hainbat lekutan jo dute: Eibarren eta inguruan, Zestoan, Bakion, eta abuztuan kotxea instrumentuz bete eta Allarizeraino joan ziren (Galizia).



## MUGI PANDEROA: "Taula gainean ondo pasatzera goaz"



**E**neritz Alberdi (ahotsa eta panderoa), Miren Gisasola (panderoa, kaja, ukelelea eta ahotsa), Irati Goikoetxea (trikitixa), Haizea Hernandez (trikitixa), Julen Bartolome (trikitixa) eta orain dela gutxi hasi den Alaitz Almorza (tronboia) dira Mugi Panderoa taldeko kideak. Abuztuan Galizia aldean izan dira, Allarizen, Eibarko, Ermuko eta Allarizeko Udalek antolatutako Euskadi-Galizia I. Jardunaldietan. "Galiziarra joateko gonbitea jaso genuenean, ezin genuen sinestu. Asteburu polita pasa genuen Allarizen. Euskaldun eta eibartar pila bat zegoen eta oso ondo zaindu gintuzten. 'A Rianxeira' ere abestu genuen eta publiko guztiak batera kantatu zuen, hunkigarria izan zen. Hurrengo urtean errepikatzen modukoa!".

2014ko Sanjuanetako lehen kontzertua guztiz inprobisatua izan zen; karaokea eta gero, modu batean ala bestean bete behar zen txosnetako egitaraua, "eta oraindik ez dakigu nola, baina kalejiretan ibiltzen ginen

batzuk elkartu eta taula gainean eta mikrofono aurrean jarri ginen. Gure lagunak ere han zeuden, lehenengo filan, eta kristona izan zen, bi ordu egon ginen jotzen, jendea dantzan jarri genuen eta zoriondu egin gintuzten". Horretarako, jendea animatzeko eta dantzan jartzeko trebetasun berezia dauka Miren Gisasolak: "transmitzea eta zuk zeuk ondo pasatzen duzula erakustea ezinbestekoa da". Horretaz gain, Marisol Arrillaga eta Adolfo Jainaga irakasleekin ikasitako trikitilari eta panderojoleen urte askotako esperientzia eta errepertorio zabalagoa dago. Beraz, instrumentuak jotzeko abilezia eta jendea animatzeko grina nahastan dira talde honetan.

Baserri-auzoetan edo kalean jotzea ez da gauza bera. Kalera begira abesti ezagunagoak eskatzen dituzte, "eta esate baterako 'Txanpon baten truke' baserri-auzo batean ez duzu entzungo. Erromeria-talde bat garen neurrian beti abesti ezagunak egiten ditugu: guk nahi dugu jendeak ondo pasa-

tzea eta jendeak ondo pasatzen du abesti ezagunekin". Erromerietako abesti ezagunetaz gain, Don't worry, La Bamba, Coyote Dance, Macarena eta horrelako abestiak ere eskaintzen dituzte. Koreografiak ere prestatuta dituzte eta, beraz, abesten eta jotzen hasi baino lehen jendeari dantza erakusten diote.

Taldeko batzuk ikasten, beste batzuk lanean... gazteenak 16 urte (Alaitzek) ditu eta zaharrenak 24 (Eneritzek). Haizea Bartzelonan ari da ikasten baina hemen dagoenean ez du taldearekin jotzeko aukera galtzen. Taldean giro ona daukate. "Izakera oso desberdinekoak gara baina oso ondo konpontzen gara. Esaterako, Miren nekaezina da eta askotan nik amaitzeko esan behar diot. Elkarren osagarri garela esan daiteke", dio Iratik.

Martxa honetan jarraitzeko asmoa daukate, taula gainean eta kalejira eta trikipoteoetan, eta "trikitixak Eibarren orain daukan indarra eusten saiatu behar gara".



## MIGUEL ZAMACOLA GANCHEGUI "MAC" (2016/VIII/6)

**"ZU JOAN ZARA, BAINA ZUREGANAKO GURE MAITASUNA EZ.  
EZ DITUGU INOIZ AHAZTUKO IZAN DITUZUN ILUSIOA ETA BIZIPOZA"**

**SENIDEEN IZENEAN, ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera  
joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi.**



Mirari Azkune soinu-joleak eta Aintzane Agirrebeña panderojole eibartarrak uda honetan kaleratu dute "Bidea hauspotzen" izenburuko lana. Bientzat lehen diskoa den honetan 13 kantu bildu dituzte eta kantu gehienetan musika zein hitzak eurek sortutakoak dira. Zehatzago esateko, diskoa osatzeko bederlatzi pieza berri eurek konposatu dituzte eta beste lau kantuek, berriz, handik eta hemendik jasotakoak dira. Ilusio handiz egindako lana dela diote eta, diskoa kaleratu eta jendeak nola erantzun duen ikusita, biak pozarren daude: 200 disko baino gehiago atera zituzten eta denak saltzeko aste bat eta erdi baino ez dute behar izan. Gauzak horrela, bigarrenaz kaleratuko dute lana, lehen edizioak eskuetatik ihes egin die eta.

## AINTZANE AGIRREBEÑA (panderojolea):

# "Kaleratu orduko disko guztiak saldu ditugu, zergatik ez dakigu"

### - Nola animatu zineten diskoa egitera?

Kasualitatez hasi ginen. Bizkaiko Trikitilari Elkarteak maketa-lehiaketa antolatzen zuten iaz eta parte hartzera animatu ginen. Lehiaketarako hiru abesti berri aurkeztea eskatzen zuten eta, aurretik inoiz abestirik egin ez bazuen ere, Mirari horretan hasi eta bost abesti sortu zituen. Eta behin gure abestiak sortuta izatean, horiek kalitatez grabatzeak merezi zuela pentsatu eta asmo horrekin joan ginen Legarreko grabazio estudioara. Baina grabatzen hasita, gustua hartu genion eta, hasierako bost abesti horiez gain, beste batzuk sortu eta grabatu genituen azkenean. Diskoan hamahiru abesti bildu ditugu, pixka bat denetarik aurki daitezke barnean. Guk sortutako bederlatzi kantuek bildu eta, hutsune modukoa zegoela ikusita, tango bat, Aintzanearen amak egindako abesti bat, Mexiko aldeko bals bat eta Silvio Rodriguezen abesti baten bertsioa ere sartu genituen.

### - Eta nolako izan da grabazioa?

Prisa barik, gustora ibili gara eta, kontu-

ratu orduko, grabazioa egiten ia urtebete joan zaigu. Walter Tuzzeo, Legarreko estudioko soinu-teknikariarekin grabatu dugu lana eta, horrez gain, lagun askoren laguntza izan dugu: Walter Tuzzeok berak instrumentu desberdinekin (baxu, gitarra eta shakerrarekin) lagundu digu; Eugenio Gisasola "Lutxurdiok" bateria jo du kantu askotan; Trio Medianoche-ko Bernardo Aguilera gitarra eta txarangoarekin lagundu digu; eta Eli Andrinuak pianoa jo du kantu batean. Etxekoek ere lagundu digute: kantu batean Eugeni Uberak (amak) eta Ander anaiak hartu dute parte eta, gainera, kantu baten musika eta beste kantu baten letra ere amarenak dira.

### - Diskoa saltzen hasi eta egun gutxitan

**ABESTIAK:** "Aire aire!", "Goza bizona", "Gau hura", "Txiki handiak", "Bihotz zauritua", "Zu eta ni", "Magurei", "Ibai", "Barrenola", "Haize aske eske", "Geure artean", "Datozenak eta doazenak" eta "Erdi ilunpean". **Kolaborazioak:** Eugenio Gisasola Lutxurdio (bateria), Walter Tuzzeo (teknikoa eta instrumentuak), Bernardo Agilera (gitarra), Eugeni Ubera -Agirrebeñaren ama- (ahotsa eta letra), Eli Andrinua (pianoa), Ander Agirrebeña (ahotsa eta argazkiak), Lorena Elizburu (letren diseinua) eta Mireia Agirrebeña (azalaren diseinua). **Salmenta:** Eibarren, Arrate Irratian, Kantabria jatetxean eta Sagarbitza tabernan; Olaia taberna (Etxebarria), Kontzeju Zaharra taberna (Barinaga), Letea jatetxea (Errezil), Ixidro Erretegia (Azkoitia) eta Tirikitrauki denda (Lasarte-Oria). 10 euro.



### - ale guztiak agortu ziren, horrelakorik espero zenuten?

Egia esateko sorpresa hartu dugu, ez dakigu zergatik saldu dugun horren azkar. Gure artean honi buruz berbetan hasi ginenean, agian trikiti munduan horrenbeste disko ez dagoela eta horregatik saldu dela hain azkar pentsatu genuen. Jendearen erantzuna oso ona izan da. Askok diskoa erosteko zain geratu direnez bigarren edizioa aterako dugu. Tabernetatik ere deitu digute, disko guztiak saldu dituztela esateko.

### - Laster Eibarren joko duzue, ezta?

Bai, Legarreko jaietan, irailaren 24an erromeria eskainiko dugu Mirarik eta biok eta, beraz, nahi duenak gure diskoko kantuek zuzenean entzuteko aukera izango du.



## Julio Egiguren Larrañaga

*Abuztuaren 5ean hil zen, 77 urterekin*

**FAMILIAREN IZENEAN, eskerrik beroena gure nahigabean lagundu diguzuen guztioi eta hileta-elizkizunera joan zinetenoi.**

**Haren aldeko irteera meza ospatuko da irailaren 11n (domekan), 12.00etan, Karmengo Amaren parrokan**

## 24. bertso-afarixa bixar Kantabrian

1993 urtian Juan Mari Narbaiza eibartarrrak Angel Mari Peñagarikano, Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña izan zittuan lagun ...eta kitto!-k antolatutako lehelengoko Arrateko bezperako bertso-afarixan. Datorren urtian, beraz, mende laurdena beteko dau ekitaldiak. Baiña horren bezperakua dogu bixar gabekua, oinguan be Lizaso-Egaña tandem-az: ohiko bikotiak Maialen Lujanbio gaur egungo Euskal Herriko azpitxapelduna eta gurian debutatuko dabean Agin Laburu Astigarragako bertsoararixa

izango dittu mahai-kide. Gai-jartzaillia, bigarrenez, iaz lan horretan estreinatu zan Jon Mikel Mujika eibartarra izango da, orduan berak egindako lanak Kantabrian bildutako guztien oniritzixa jaso eta gero.

Bertso-afarixaren prezuiua be ez da aldatu eta, gitxi geratzen badira be, azken txartelak salgai dagoz oindiokan, batez be Kantabria jatetxian bertan. Gitxi batzuk geratzen dira Sagarbitza eta Kultu tabernetan be. Betiko moduan, bixarko afarixa gabeko 21:00etan hasiko da eta, sabela ondo bete eta gero, bertso onenekin goza-



Jon Mikel Mujika izango da gai-jartzaillia aurtan be. **Leire**

tzeko ordua helduko da, "segidillak eta halakuak sortutako umore onian beti be". Lagun izango dittuen beste hirurak bezain ezaguna ez bada be, Laburu gero eta plaza gehiago dabil egitten eta txapelketetan be urrats haundixaguak dihardu betetzen. Holan, Gipuzkuako iazko txapelketan hirugarrena geratu zan, Beñat Gaztelumendi eta Alaia Martinen atzetik, eta Euskal Herrikan be azken fasietara heldutakua dogu.

Oin arteko 23 jaialdixetatik, Lizaso 20ttan izan da (oingua 21.ena izango da) eta Egañak bat gitxiago daka. Bikote horren atzetik dago Gregorio La-



Agin Laburu lehelengoz izango da Arrate bezperako bertso-afarixan.

rrañaga "Mañukorta" (10 urtetan jarraixan izan zan Kantabrian) eta gero Maialen Lujanbio (aurten zortzigarrenez), Amets Arzallus eta Peñagarikano (bost bidar) eta Sustrai Colina (lautan) dagoz.

IRAILAK 7 ASTEAZKENA **BERTSO-AFARIA**


**SARRERAK SALGAI**

ANDONI EGAÑA AGIN LABURU

SEBASTIAN LIZASO MAIALEN LUJANBIO

Kultu Sagarbitza Kantabria

32€



### TXOMIN MENDEZ RODRIGUEZ

2016ko abuztuaren 30ean hil zen, 75 urterekin

*"Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza"*

ETXEKOAK



### JULIO EGIGUREN LARRAÑAGA

(2016-VIII-5)

*ZURE irribarre eta samurtasuna betirako izango dira GURE ARTEAN.*

Eva-ren lagunak





# kitTONBOLIA

## Txanpon baten truke...

Urtebete pasa da Arraten azken KITTONBOLIA montatu, opari guztiak apaletan antolatu eta txarteltxoak banatu genituenetik. Urtebete hainbat eta hainbat opari zeuen artean banatu genituenetik. Aurreko urteetan bezala, arrakasta itzela izan zuen iazko KITTONBOLIAk, eta aurten ere horrela izatea espero dugu. Maiatzean hasi ginen Eibarko denda, enpresa eta erakundeekin lanean, eta euren laguntasunari esker, aurten ere opariz beteta aurkituko duzue KITTONBOLIA.

Eibartar askorentzako ohitura bihurtu da KITTONBOLIA n parte hartzea eta euro batzuekin elkarteari laguntzea. KITTONBOLIA n zein antzerako funtzionamendua duten beste tonboletan, denok izaten dugu etxera opariren bat eramateko itzaropena, hori argi dago! Baina, horretaz gain, badakigu zuetako askok euskararen alde egiten dugun lanean sinisten duzelako erabakitzen duzuela eskua poltsikoan sartzeta eta txanpon batzuk KITTONBOLIA n lagatzea. Beraz, alde zuzenetik **MILA ESKER** etorriko zareten haur, gazte, heldu eta nagusi guztioi. Eibarren gure la-



na egiten jarraitzeko ezinbestekoa dugu KITTONBOLIA antolatzea.

Ondorengo orrietan topatuko dituzuen denda, enpresa eta erakundeekin egindako elkarlanari esker izaten da posible KITTONBOLIA aurrera ateratzea. Euren parte-hartzeari esker aurten ere KITTONBOLIA opariz beteta egongo da: gazta, afari, txuleta, erosketatxartel, ardo botila, telebista, GPS, argazki kamera, kamiseta, motxila, erloju, urdaiazpiko, lurrin, eskolamaterial, Coliseorako sarrera... eta beste milaka opari zuen zain. Zorte on!!!



**MILAKA OPARI**  
eibartarron artian banatzeko...  
*Zatoz eta zorte on!*



**Arrate egunean opariz beteta izango dugu Kittonbolia. Euro baten truke opariarekin etxera bueltatzeko aukera zabala izango da. Eskerrik asko parte hartu duzuen denda eta enpresa guztioi!!!**



- +X- HARATEGIA
- AIBE
- AKARA
- ANSA BITXITEGIA
- ARREGI-DOMINGUEZ
- ARRAINDEGIA
- ARTOLA JATETXEA
- ASKASIBAR
- ASPE
- ASTELENA TABERNA
- ASTIGARRAGA
- ATHLETIC CLUB
- AVIA AMAÑA
- GASOLINDEGIA
- AVIA AZITAIN
- GASOLINDEGIA
- AZITAIN ERRETEGIA
- AZPIRI JOSTUNDEGIA
- AZPIRI SANEAMENDUAK
- BAGLIETTO
- BENICOPA
- BURBUJAS Y MAS
- CAPI
- CLOSET
- COCA-COLA
- DANDARA
- DEPOR TABERNA
- DIRDAI
- DITARE
- DIVINA VALENTINA
- DOMEINUA.EUS

- EGUREN
- EIBAR ESKUBALOIA
- EIBAR KIROL ELKARTEA / SD EIBAR




- EIBAR MOTOR
- EIBAR RUGBY TALDEA
- EIBARBUS
- EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA
- EIBARKO UDALA



- EL CANTON DE LA AVENIDA



- EL CORTE INGLES




- EL JARDIN DE TULIPA
- EL VESTIDOR
- EMANKOR



- EROSKI EIBAR
- HIPERMERKATUA
- ERREBAL KIROLAK
- ESKARNE





**ESKERRIK ASKO parte hartu duzuen danori!**

- ESTHER GALARZA
- FARMALUR
- GARBIVOX
- GENOVEVA ARRAINDEGIA
- GERRITEK
- GRATZINA
- GUBY MUTILAK
- GUBY NESKAK
- GURBIL
- HOMME
- HOTEL UNTZAGA PLAZA
- IDOIA BERGARETXE SPA
- IKUSIMAKUSI
- INDUSTRIAS G. ARIZAGA
- INDUSTRIAS MAIL
- IÑAKI HARATEGIA
- IRRITSA



- ITXESI
- IZADI
- IZANE
- JAUREGI
- JAZ-ZUBIAURRE
- JERONIMO
- JORGE-VEGA
- K2
- KANTABRIA JATETXEA

- KANTOI GASOLINDEGIA
- KERALA
- KETESA
- KINKILA
- KOKEIN
- KOLORETE
- KONTENT
- KRESALA ARRAINDEGIA
- KULTU TABERNA
- LA CUESTA OPTIKA
- LABORAL KUTXA
- LAKETT
- LEDER
- LIDE
- LOLA'S
- LOOK
- LUIS DEL REY
- MAMACAS
- MARIAN- IDOIA SPA
- MARSÍ
- MAS QUE WAPOS
- MEKA-HOTEL
- MERTXE GAZTA ETA TXERRIKIAK
- MUGIKA HARATEGIA
- MUMA
- NATURAL
- NEURE
- NICE NICE
- NO COMMENT
- OBERENA HARATEGIA
- ORBEA

- OROZ EXCLUSIVAS S.L.
- OTEGI HARATEGIA
- PIRRITX ETA PORROTX



- PITXIAK
- PUBLI-RESA
- SALABERRIA
- SAN ANDRES GOZOTEGIA
- SELENE
- STYLING
- SU TA GAR
- SUTONDO
- TRIBEKA
- TWINS
- TXIOKA
- TXUTXUFLETAS
- ULMAR
- UMEA
- URDANIBIA
- URKOTRONIK
- VALENCIAGA
- VINOS SOLERA EIBARRESA
- YRAOLAGOITIA
- ZORIONAK KIDS AND PARTY
- ZUBI-GAIN
- ZURKULU

# Arrateko Amaren Jaixak 2016

## Irailak 7, ARRATE BEZPERIA

- 18:00.-** MEZIA Arrateko Santutegixan eta, ondoren, SALBEA. Jarraixan, TXUPINAZUA eta kanpai-errepika.
- 19:00.-** HERRI-KIROLAK.
- 19:00.-** TRIKI-POTEUA txosnetan.
- 20:45.-** FLASHMOB.
- 21:00.-** BERTSO AFARIXA: Sebastian Lizaso, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Agin Laburu. Gaijartzaillia: Jon Mikel Mujika. Kantabria jatetxian. Antolatzaillia: ... eta kitto!
- 21:00.-** HERRI-AFARIXA.
- 22:30.-** KONTZERTUA, txosnen eskutik: Lágrimas de Sangre, Niña Coyote & Chico Tornado eta Belako.
- 04:00.-** JOLASAK.



## Irailak 11, KOFRADIXA EGUNA eta basarritar jubilauren eguna

- 10:30.-** S. Aldazabal XX. ANTIXITXIKETALDIXA. Eibarko Klub Deportibotik urten eta Arrateraiño (Orbeko bidetik).
- 11:00.-** MEZA NAGUSIXA bertsolarixekin eta Arrateko ezpata-dantzarixekin. Ondoren, prozesiñua Usartza Txistulari Bandak lagunduta.
- 12:00.-** PAELLA LEHIAKETIA.
- 14:00.-** Paella lehiaketako irabazleri SARIXAK BANATZIA.
- 14:30.-** JUBILAUENDAKO BAZKARIXA, Kantabria jatetxian. Basarritar nagusixerri oparixak banatuko detsez. Trikitilari eta bertsolarixekin.
- 17:30.-** IDI PROBAK.

## Irailak 8, ARRATE EGUNA

- 10:00.-** Azittaingo surtidoretik urten eta Arratera IGOERIA, Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik. Saldia, txorizua eta ardaa banatuko dittue Zesteroko iturrixan Jai Batzordiak antolatuta.
- 10:00.-** KITTONBOLIA.
- 10:30.-** KALEJIRIA Eibarko Usartza Txistulari taldiaren eskutik.
- 11:00.-** MEZA Nagusixa Arrateko Santutegixan. Kezka dantza taldiak eta Usartza Udal Txistulari taldiak Arrateko Amaren EZPATA-DANTZIA egingo dabe. Ondoren, Arrateko Amaren PROZESIÑUA, Usartza Txistulari taldiak, Jainaga eta Narbaiza trikitilarixak, Kezka Dantza Taldiak, bertsolarixak eta agintarixak lagunduta.
- 12:00.-** PRESUEN eskubidien aldeko ALKARRETARATZIA.
- 12:30.-** Kezka Dantza Taldiak eta Usartza Udal Txistulari Taldiak **ARRATEKO AMAREN DANTZAK** aurkeztuko dittue zelaixan.
- 13:30.-** TRIKITILARI ETA BERTSOLARIXAK.
- 17:00.-** BERTSOLARIXEN SAIUA.
- 17:00.-** Arrateko Amaren HIRU TXIRLO Sarixa. Antolatzaillia: Asola Berri alkartia.
- 17:30/20:30.-** Bete zaitez... baina emozioz! alkoholaren inguruko kanpaiña informatzaille eta hezitzaillia. Sasoa alkartiak (Osasun heziketa eta drogamenpekotasunen prebenziñorako alkartiak) **ALKOHOLEMIA KONTROLAK** egingo dittu.
- 17:30.-** DANTZA SOLTE TXAPELKETIA. 10 bikote onartuko dira, aldez aurretik gonbidauta (bost 15 urtetik gorakuak eta beste bost 15 urtetik beherakuak).
- 18:30/21:00.-** DANTZALDIXA Egan taldiarekin.
- 23:00.-** KONTZERTUA, txosnen eskutik: Las Tea Party.

## Arrate egunaren inguruko mezak

- **EGUAZTENEAN (ARRATE BEZPERAN):** 18:00.- Salbea Arraten.  
19:00.- Salbea San Andres parrokian, koroak lagunduta.
- **EGUNEAN (ARRATE EGUNEAN):** 09:30ean, 11:00etan  
(meza nagusia eta prozesioa), 13:00etan eta 18:00etan.
- **DOMEKAN (KOFRADIA EGUNEAN):**  
11:00.- Meza nagusia Arrateko santutegian. Ondoren, prozesioa.



## Autobus zerbitzua

**PREZIOA**  
**2 euro**

- **ARRATE BEZPERAN**, Arratera igotzeko autobusak egongo dira 17:30ean eta 18:30ean Ego-Gainetik.
- **ARRATE EGUNEAN**, Eibarrera jaisteko autobusak egongo dira goizaldeko 03:00etan, 04:00etan, 05:00etan, 06:00etan, 07:00etan eta 08:00etan. Arratera igotzeko autobusak, berriz, Toribio Etxebarriatik irtengo dira 09:00etatik aurrera, bete ahala. Egun osoan gora eta behera ibiliko dira autobusak. Jaisteko azkena 21:30ean irtengo da Arratetik.
- **BARIXAKUAN (irailak 9)**, Eibarrera jaisteko autobusak egongo dira goizaldeko 01:00etan, 02:00etan eta 03:00etan,

## Telefono jakingarriak

- LARRIALDIAK.**- SOS Deiak: 112. Gurutze Gorria: 943222222.  
DYA: 943464622. DYA anbulantziak: 943208480.
- OSASUN ZENTROAK.**- Larrialdiak: 943461111 / 943440633.  
Erdialdeko anbulategia: 943032500. Torrekuako anbulategia: 943032650. Mendaroko ospitala: 943032800.
- BESTEAK.**- Suhiltzaileak: 112/943202328.  
Udaltzaingoa: 092 / 943708424. Ertzaintza: 943204080.
- GARRAIOAK.**- Untzagako taxiak: 943203071. Anbulategiko taxiak: 943201325. Eusko Trenbideak: 902543210 / 943120546.

**EIBAR**  
zuk behar **sofásX** duzuna

**Karmen, 15** 943 531 261  
688 669 479

**Ondo pasa Arrateko jaietan!!!**

**amets**  
ALTZARIAK

**30 urteko esperientzia sektorean**  
ARRASATEN (Nafarroa etorbidea, 9) AMETS Altzariak-en gaude

## Aterpetxeak urtebete

Urtebete egin zuen ekainean berriro zabaldutako Arrateko aterpetxeak eta, berarekin batera, ordutik dago martxan bertan dagoen Guda Zibilaren Interpretazio-zentroa ere. Ez dira geldirik egon lehen ikasturte honetan eta, horrela, *"bi ikastetxe izan dira programa egiten, uztailean koloniak izan ziren eta, gainera, EMUSIK 2016a jaialdia- ren barruan (Donostia2016-ko programazioarekin) musika- eskola batzuk hemen izan dira"*, dio Fran Apezetxea Ateriko Sustapena eta Berrikuntzako arduradunak. Aterik hainbat egoitza eta aterpetxe kudeatzen ditu eta Arratekoa da eurretako bat, Eibarko Udalarekin adostutakoari jarraituta. Interpretazio-zentroa ezagutzeko aplikazio berria sortu du, horko

informazio eta ordutegi-ekin eta hor azaltzen ditu LHko 1., 2. eta 3. zikloetako eta DDHko 1. ziklorako ekintzen plangintza, "Eibar Berrikuntza" programaren barruan.

Arrateko aterpetxea azpiegitura soziokulturala da gaur egun, Arrate aldeko balio turistikoa nabarmentzeko prestatutakoa. Horretarako, alde bate- tik, taldeak hartzeko aterpet- xea du (55 lagun sar daitezke) eta, bestetik, Gerra Zibileko Eibarko Fronteari buruzko Interpretazio Zentroa. 719 metro karratu ditu eta beheko plan- tan harrera eta bulegoak daude, Interpretazio Zentroa, komu- nak, mugikortasun gutxiko- entzako gela, ikastaro- eta for- mazio-gela, sukaldea eta jan- tokiarekin batera. Eta lehen so- lairuan begirale eta ikasleen-



tzako bi gela, beste bi gela li- terekin (48 lagunentzat), du- txak eta komunak daude.

### 1910eko azpiegitura

Urte horretan hasi zen lane- an "Arrateko kolonia" deituta- koa, Udalaren ekimenez. Gi- zarte arloan neurri berritzaile- a eta aurrerakoia izan zen sasoi hartan: izan ere, baliabide eko- nomiko gutxi zituzten Eibarko neska-mutilak udako hilabete- tan aisialdiaz gozatzeko to- kietara eramatea zen kontua.

Horrela, umeak aisialdian itsa- soan bainuak hartzera edo Arrate aldeko aire garbia ar- nastera eramaten zituzten. 1990eko hamarkadan berri- tu zuten eraikina eta 1998an be- rriro zabaldu. Zentroa bisita- tzeaz gainera, zita eska daite- ke gerra frontierik latzena izan zen horretan izandako gorabe- heren berri izateko. Bisitak do- meketan egin daitezke, 11:30- etik 13:30era. Interesatu- ek 94-4029099 telefono zenbakira deitu dezakete.

## ARRATEKO AMAREN JAIK 2016

## irailak 7/8/11

Gerra Zibileko Interpretazio Zentroa bisitatzeko informaziora dago...



antolatzailea: **EIBARKO UDALA**

laguntzaileak: **ANDIRAO ELKARTEA**

**...ETA KITTO!, BETIKUAK**

**EIBARKO KLUB DEPORTIBOA**

**KEZKA DANTZA TALDEA**

# Arrateko zelaixa musikaz beteta

**S**an Juanak amaitu eta ia atsedenik hartu gabe Jaixak Herrixak Herrixandakok Arrateko jaiak antolatzeari ekin zion. Aurren, egitaraua bi egunetara luzatu dute. Arrate bezperari hasiera emateko, arratsaldeko zazpiretan trikipoteoa egingo da Eibarko Trikitilari Gazteen eskutik. Ondoren, txosnagunean flashmob-a egingo da SAREk deituta, duela 15 urte dispertsioak erahildako Iñaki Saez eibartarra eta Asier Eriz soraluzetarra omentzeko. Gaueko bederatzietan, herri afaria egingo da (afarirako tiketak De por tabernan daude salgai).

Eta kontzertuei dagokienez, hilaren 7ko gauean hiru talde igoko dira taulara. Alde batetik, "Lágrimas de Sangre" talde kataluniarra izango da. Hip hop estiloaz gain, rock eta reggae doinuak eurenganatzuz rap aldarrikatzailea egiten dute. Horiez gain, "Niña Coyote eta Chico Tornado" ere egongo dira. Erritmo gogorragoak eskainiko dituzte, horretarako bateria, gitarra eta ahotsaz barrik baliatuta. Eta bezperako musika saioekin amaitzeko, hiru garren taldea post-punk musika egiten duen Belako talde mungiarra izango da.

Arrate egunean, berriz, udalak Egan taldea ekarriko du urteroko tradizioari eutsiz. Horien doinu herrikoiak entzun ostean, JHH Jai Batzordeak "Las Tea Party" Dj-ak gonbidatu ditu, Arrate eguna musika elektronikoarekin agurtzeko.

Kontzertuetarako taldeak aukeratzeko orduan Jaixak Herrixak Herrixandakok hainbat irizpide kontuan izan dituela azaldu digute: "Hizkuntza eta batez ere euskararen presentzia bermatzea, taula gainean emakume eta gizonen arteko parekidetasunari eustea eta, musika estiloei dagokienez, aniztasuna eskaintzea".



Egan



Las Tea Party



Niña Coyote eta Chico Tornado



Belako



Lágrimas de Sangre



EIBARKO DENDA BERRIA ZABALIK  
TORIBIO ETXEBARRIA 11-n

Irailaren 12an, 19:00etan,  
1. urteurrenaren  
doako **cocktail-a**  
Irailako kanpaina  
%5eko **deskontua**

Etor zaituz ospatzera eta  
denda berria ikustera!

Patukos

www.patukos.net

Tel: 943-259281

## Somos Eibar Eskubaloiak mailari eustea helburu

Aurtengoa denboraldi ezberdina izango da Fernando Fernandezek zuzentzen duen eskubaloiko gure herriko lehen taldearentzat. Abuztuaren 22an hasi zituzten entrenamenduak, batez ere liga hasteko, Ipuruan, irailaren azken asteburuan hartuko duten Iruñeko Anaitasuna indartsuaren aurkako partidua prestatzeko helburuarekin. Aurten taldeak baja asko izango ditu, horrek darraren taldearen gaztetzearekin batera: Haritza bigarren taldetik igotako askok protagonismoa hartuko dute eta oraingoan, aurreko denboraldietan ez moduan, gehiago ahaleginduko dira mailari eusten. Saiklapeneko goiko postuetara ohituta izan bagaituzte ere, datorren denboraldian beheko postuetatik ihes egiteko egin beharko dute lan Somos Eibar eskubaloikoek.



Azken denboraldiko talde nagusia. **Leire**

## Ateak zabalik waterpoloan

Waterpoloko Urbat Urkotronik taldeak sendo eutsi dio aurre-denboraldiari eta ate zabaleko jardunaldiak antolatu ditu Ipurua kiroldegiko kanpoko igerilekuan. Aurreko zapatukoari jarraituta, hilaren 10ean ere 2005etik 2008. urtera arte jaiotakoek aukera izango dute kirol horrekin kontaktuan jarri eta praktikatzeko. Jardunaldiak goizeko 10:45etik 11:30era iraungo du.

## Gimnasia erritmikoak hilaren 12an hasiko du ikasturtea

Federatutako gimnastak dagoeneko hasi dira denboraldia prestatzen, senior mailako taldeak, abenduan, Espainiako Txapelketan parte hartuko duelako. Besteek datorren astelehenean hasiko dute ikasturtea. Maila guztietako matrikulazioa irailaren 30era arte dago zabalik eta 1988an sortu zen Ipurua Gimnasia Erritmikoarekin harremanetan jartzeko interesatuek kiroldegira jo dezakete edo, bestela, [www.ritmicaipurua.com](http://www.ritmicaipurua.com) helbidera jo.



Azken denboraldiko jubenil mailako Urki B taldea.

## Urkiko taldeek aurre-denboraldi betean dihardute

Entrenamenduekin batera, gainera, dagoeneko lagunarteko hainbat partidu jokatu. Aurreko zapatuan jokaturako partiduen ondoren, datorren asteburuan beste hainbat neurketa izango dituzte zain Urkikoek: jubenil A mailakoek Antzuolaren kontra jokatu dute, B mailakoek Lagun Onak izango dute aurrez-aurre eta ohorezko kadeteak Iliintxa garaitzen ahaleginduko dira Legazpin, hirurak ere zapatuan; domekan, bestalde, Lagun Onak-en aurka jardungo dute kadete mailakoek. Beste talde guztiek abuztuaren 29an hasi zituzten entrenamenduak, neurketa ofizialak jokatzen hasi aurreko lagunarteko partiduak prestatzearekin batera. Erregional, jubenil eta kadete mailako taldeek irailaren 18an hasiko dute denboraldia, infantil txiki mailakoek urriaren 2an eta eskola mailako infantil eta nesken taldeek urriaren 16an. Alebin mailako taldeak oraindik ez du egutegia ezagutzen.

## Pello Osoro eta Delteco Triatloi Taldea Gipuzkoako txapelkun

Zumaian jokaturako sprint triatloi modalitateko Gipuzkoako txapelketan, Pello Osoro berriz ere podiumeko gorenera igo zen eta, horrekin batera, Delteco Eibar Triatloi Taldea saiklapeneko lehenengoa izan zen. Beste taldekideak honako postuetan sartu ziren:



Txomin Osoro (14.), Igor Atxa (27.), Joseba Ortega (78.), Adur Juaristi (178.), Moises Altuna (189.), Alberto Agirre (208.) eta Jesus Sanchez (236.) Emakumezkoetan Maialen Zamaolak 30. egin zuen.

Pello eta Txomin Osoro abuztuaren Suitzan jokaturako triatloi bateko podiumean.



## MANU FERNANDEZ GOIKOETXEA

2. URTEURRENA: 2014-VIII-4

**EZ EGIN NEGARRIK AMAITU DELAKO;  
IRRIBARRE EGIN BIZI IZAN DUGULAKO.**

**Zure kuadrila**

## Simon Aldazabal Arratera igoeraren 21. edizioa

Datorren domekan, irailaren 11n, jokatu da Simon Aldazabal herri-krosaren edizio berri bat. Betikoari jarraituta, lasterketa goizeko 10:30ean hasiko da Klub Deportiboaren aurretik eta, Orbeko bidetik jarraituta, Arraten amaituko dute bost kilometro eta erdiko ibilbidea. Parte hartzeko izenematea doanekoa da eta ordu-bete lehenago zabalduko dute Depor tabernan; proba amaitu ondoren, bestalde, sari-bana-

keta ekitaldiarekin batera, opariak zozketatuko dira parte-hartzaile guztien artean. Aurten Juan Jose Malvar Eibarko atleta omenduko dute antolatzaileek eta, ibilbidean aldaketarik egongo ez bada ere, "lur guztia asfaltatuta dago, azken Euskal Herriko Itzuliaren erloju kontraktorako bidea atondu zutelako". Probak honako markak ditu: 32 minutu eta 21 segundo nesketan eta 25 minutu eta 2 segundo mutiletan.



Juan Jose Malvar beterranoak ondo merezitako omenaldia jasoko du aurten Eibarko Klub Deportiboko antolatzaileen eskutik.

## Nazioarteko partidua Concepto Egilerentzat

Neurketa bikainarekin aurkeztuko du bere lehen taldea Debabarrena areto-foballeko klubak. Concepto Egile talde nagusiak Frantziako bigarren mailan jokatzen duen Toulouse (argazkian) hartuko du datorren zapatuan Elgoibarko IMH Kiroldegian. Klubarentzat nazioarteko lehenengo partidua izango da 18:30ean hasiko dena eta sarrera doan izango da. Toulousek Frantziako selekzioan jardundako hiru jokalariditu (Youness Drari eta Abdallah Sedira, 21 urtetik azpikoetan, eta Lorenzo Lobato 19koetan) eta beste bat - Ibrahim Halak- hondartza-foballeko selekzio absolutuan ibilitakoa.



## Matrikulatzeko epea zabalik Kalamuan

Denboraldi berriari begira Kalamua judo klubean izena eman nahi dutenek Txirio kale 1eko egoitzan egin dezakete edo, bestela, honako telefono zenbaki batera deituta: 943-700076 eta 686-944558. Klaseak datorren asteko astelehenean, hilaren 12an, hasiko dira.



## MARI CARMEN MUTILOA ALDAZABAL (2016-VIII-11)

*“Lagun on bat aurkitzea oso zaila da... Galtzea hainbat zailagoa... Eta ahaztea, ezinezkoa”*

**ANBULATORIO PARKEKO ZURE LAGUNAK**



*Izkua-tik Salbadorrera lañoz estalitta, illargi eta sugar zaunka isillian, zure anima mihazten, mendebaletik haizia zuhaitzak igurtzen, gau illunian izar disdiratsu bat... Ziur gaude, Julio, izar hori zu zarala: GURE TIO JULIO.*

**Musu haundi bat eta besarkada bat**




# Eibar FT: hirugarren denboraldia izarren artean


**23** jokalarirekin hasi du 2016-17 denboraldia Eibar FT-ren 1. Mailako plantilak. Bigarren denboraldia izango da Jose Luis Mendilibarrentzat eta, udako emaitzak oso onak izan ez badira ere, Ligan bi jardunaldi jokatuta hiru puntu dituzte eibartarrek Valentziari lporuan irabazitako partiduari esker. **Amaia Gorostiza** dugu presidente berria eta, horrez gain, Ligako batzorde ordezkariaren bokal izendatu dute. Castellón taldearen **30. peña ofiziala** osatu zuten abuztuan, Peña Alto Palancia Armera izenekoa. Goi gamako **autobusa** ere estrenatu du taldeak, Autocares Olabarriak Irizar enpresako 18 zenbakiko modelo berria erosi baitu. Bestalde, interesatuak izena eman dezakete oraindik foball klubetako **kudeaketa teknikoan aditu** titulua eskainiko duen **ikastaroan**. Bigarren promozioa izango da, iaz Del Bosque Espainiako hautatzaileak inauguratu zuenaren ondorengoa. Eta lporuako partiduetan jokalariekin **argazkia ateratzea** nahi duten neska-mutilek (3tik 12 urtera artekoek) izena eman dezakete honako helbidean: [eibar.com/eu/zaleak/atera-argazkia-idolo-armaginekin](http://eibar.com/eu/zaleak/atera-argazkia-idolo-armaginekin). Partiduko 25 gazte onartuko dira.




Yoel




Galvez




Ramis



Escalante



Rivera




Capa




Inui



Enrich




Jota



Ruben Peña




Riesgo




Dani Garcia




Dos Santos



Fran Rico




Kike Garcia




Arbilla



Luna




Lejeune




Pedro Leon



Nano



Juncà



Adrian



Bebé

## AURREDENBORALDIKO EMAITZAK

Real Union 0 Eibar 1 (Pere Milla)  
 Eibar 0 Sanse 1  
 Mirandes 2 Eibar 2 (Kike Garcia, Elgezabal)  
 Lekhwiya 1 Eibar 3 (Elgezabal, Pere Milla, Bebé)  
 Besiktas 3 Eibar 0  
 Colonia 2 Eibar 0  
 Leipzig 3 Eibar 2 (Bebé, 2)  
 Reala 1 Eibar 1 (Ruben Peña)  
 Osasuna 0 Eibar 1 (Kike Garcia)  
 Zaragoza 2 Eibar 2 (Dos Santos, Inui)  
 Deportivo 2 Eibar 1 (Ramis)  
 Eibar 1 Valentzia 0 (Pedro Leon)  
 Sporting 1 Eibar 1 (Adrian)

## FITXAKETAK

Christian Rivera (Oviedo), 3 denboraldirako  
 Ruben Peña (Leganés), 3 denboraldirako  
 Lejeune (Girona), 4 denboraldirako  
 Pedro Leon (Getafe), 2 denboraldirako  
 Yoel (Valentzia), 1erako lagata  
 Bebé (Benfica), 4 denboraldirako  
 Galvez (Werder Bremen), 3 denboraldirako  
 Fran Rico (Granada), 2rako lagata  
 Nano (Tenerife), 5 denboraldirako  
 Arbilla (Espanyol), 3 denboraldirako

## EIBARREK LAGATAKOAK

Elgezabal (Alcorcón)  
 Jordi Calavera (Lugo)  
 Barrenetxea (Sestao River)  
 Pere Milla (UCAM Murtzia)  
 Gurrutxaga (Amurrio)  
 Gayoso (Tudelano)  
 Escoruela (Real Union)  
 Txemi Garcia (Bermeo)  
 Iker Vicente (Lagun Onak)  
 Felipe, Amelibia, Sergi Garcia  
 Thaylor eta Guarnido (UD Logroñés)

## HURRENGO PARTIDUAK

Granada-Eibar (11, domeka, 18:15)  
 Eibar-Sevilla (17, zapatua, 18:30)  
 Malaga-Eibar (20, martitzena, 20:00)  
 Eibar-Reala (24, zapatua, 13:00)



# Irakurle taldeetarako izen-ematea zabalik

Bihar, eguaztena, amaituko da Harixa Emoten euskarazko irakurle taldean izena emateko epea. Gazteleraz egiten diren tertulietan izena emateko epea, berriz, irailaren 14ra arte izango da zabalik. Talde biak 16 urtetik gorakoentzat pentsatuta daude. Dena dela, haurrek ere izango dute eurentzako bereziki antolatutako irakurle taldeetan parte hartzeko aukera.

**Harixa Emoten** euskarazko irakurle taldean, idazleak bere liburua irakurri dutenei lanari buruzko ideiak, esperientziak eta bi-zipenak elkartrukatzeko aukera eskainiko zaie, aurrez aurreko solasaldien bitartez. Liburuaren mamia ateratzeko Antxon Narbaizaren laguntza izango dute eta saioak ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean egingo dira. Urriaren 4an hasiko dute ikasturtea, Anjel Lertxundiren "Zu" liburua aztertzeko saioarekin. Ekitaldia hilean behin izango da, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara eta parte hartzea dohainik da.

**Gaztelerazko irakurle taldea** ere hilean behin elkartuko da, bigarren martitzenean, 19:00-etatik 20:00etara. Kasu honetan dinamizatzailea Peru Maradiaga izango da. Lehen saioa urriaren 11n egingo da eta egun horretarako aukeratutako liburua Irti Jimenez-en "Nora" da.

## Umeendako taldeak

Bestalde, haurrentzako bereziki pentsatutako irakurle taldeak ere osatuko dituzte: **"Azalerako ipuinak"** izenekoa urtebete-ko umeek eta Haur Hezkuntzako 2 eta 3 ur-



Harixa Emoten urriaren 4an hasiko da, Anjel Lertxundirekin. Irudian iazko saio bat, Kirmen Uriberekin.

teko geletako umeek izango dute parte hartzeko aukera, amak edo aitak lagunduta. Saioak umeen liburutegian izango dira, 17:00etatik 17:45era, honako egun haue- tan: urriak 17, azaroak 14, abenduak 19, ur- tarrilak 23, otsailak 13, martxoak 13, apiri- lak 24 eta maiatzak 15. Euskaraz izango di- ra eta arduraduna Saroa Bikandi izango da (izen-ematea irailaren 23ra arte).

**"Liburuen poltsa"** delakoan, berriz, Haur Hezkuntzako 4 eta 5 urteko geleta- ko eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mai- letako umeak egongo dira, amak edo ai- tak lagunduta, adinaren arabera 2 tal- detan banatuta. Horiek ere umeen libu- rategian bilduko dira, egun hauetan: urriak 17, azaroak 14, abenduak 19, urta- rrilak 23, otsailak 13, martxoak 13, apiri- lak 24 eta maiatzak 15. Saroa Bikandik emango ditu saioak, euskaraz, 18:00-eta- tik 19:00etara (lehenengo taldea) eta

19:00etatik 20:00-etara (bigarren taldea). Izen-emateko epea irailaren 23ra arte egongo da zabalik.

Eta **"Paperezko hegoak"** izenekoa ume eta gaztetxoek (LHko 3. mailatik 6. mailara) irakurle kluba da eta, arduradunen berbetan, "irakurketa klubak tailer bilaka- tzen ditugu. Saio bakoitzean, irakurritakoa talde-solasaldian lantzeaz gain, sorkuntza ariketa bat gehitzen diogu. Horrela, par- taideek sortzeari beldurra galdu eta goza- men osoagoa bereganatzen dute". Saioak Portalean izango dira, hilero, urriaren 18an hasita (17:00etatik 18:00etara). Dinamiza- tzailea Peru Magdalena izango da (izen- ematea irailaren 30era arte).

Talderen batean parte hartu nahi due- nak zuzenean liburutegian eman dezake izena edo, bestela, telefonoz (943 70 84 37) edo e-mailez (liburutegia@eibar.eus) ere badago horretarako aukera.



AINARA RIVERAS

## Bat. Bi. Hiru. Prest gara!

Hemen da, iritsi da kurtso hasiera gehienontzat. Martxa hartzea tokatzen da berriro. Eibartarrontzat Arratera bisitak adierazten zuen hasiera berria gurean. Horrela gogoratzen dut nik behintzat txiki eta nerabe sasoiatan. Ikastolara edo institutura bueltatzea tokatzen zen ondoren. Badira urte batzuk Eibarren bizi ez naizela eta, Arrateak ez ditugun arren, argi daukat irailako martxa denean berdina izaten dela. Aldaketa nabarmenenak dira egunerokoa guk markatzeari uzten diogula eta eguna ordutegien arabera egituratzen hasten garela. Etxeko handiak lanera buelta eta etxeko txikiak eta gaztetxoak eskolara. Askotan erresistentzia ugariko momentua. Familia askorentzat aurreikuspen eta gastu handiko une korapilatsua da iraila. Helduak erritmo berrira egokitzearekin batera, kurtso berria nola antolatuz izaten da arduretako bat. Eskolako testu-liburuek eta materialek ere sortzen dute buruhaustea. Aukera interesgarria da azken hori txikiekin batera partekatzea, elkarrekin prestatzea, euren ardura ere badela erakustea eta, bide batez, datorrenaren lehen zertzeladak agertzea. Sentitzen dutenaz ohartu, kurtso berrira begirako aldaketak, zalantzak, urduritasunak, proiektu berrien erronkak identifikatzea eta konpartitzea. Estimulu askoko bi hilabete luze bizi eta gero, txiki eta gazte askori bueltara egokitzea zaila egiten zaie. Helduok eta inguruak, honetan ere, zer egin garrantzitsua dugu gure txikien egokitzapena ahalik eta errazten izan dadin. Honetan ere izan behar gara eredu eta bidelagun leial eta, duda barik, bueltak duen onenaren funtsa zein den ere erakutsi. Bat. Bi. Hiru. Prest gara!

## Iazko gonbidatuak Arrateko dantzetan

Kezka Dantza Taldeak Arrate egunean urtero eskaintzen dituen dantza tradizionalak iazko bi gonbidatuak izango dituzte berriro gure artean. Aitor Sorazu azkoitiarra eta Karmelo Angiozar berriztarrak lesionatu egin ziren Arrate egunean bertan dantzan eta, euren lanak nahi bezala ezin izan zituztenez amaitu, "aurten berriz etorriko dira, euren maila bikaina erakusteko asmoz". Bestalde, aurtengo bi gonbidatuak Julen Leuza eta Leire Leza iruñarrak izango dira, biak ere Duguna dantza taldeko dantzariak.

Kezkako dantzariak ohikoa



izaten dute kanpora joaten direnean Arrateko dantzak egitea, baina aurten uztailan Zurich-en egindako erakustaldian ezin izan zuten Arrateko

ezpata-dantzarik egin: "Gure ezpatak armak zirela eta ez zituguten eramaterik laga". Azkenean Arrateko trokeo-dantzak egin zituzten Zurich-en.

## Indalezio Ojanguren argazki-lehiaketa abian

Udalak, Klub Deportiboaren laguntzaz, 2016ko I. Ojanguren XXIX. Argazki Lehiaketa deitu du. Nahi duten guztiek izango dute parte hartzeko aukera eta gaia ere norberaren aukerakoa izango da. Egile bakoitzak gehienez ere hiru argazki aurkez ditzake zuribeltzean eta beste hiru koloretan. Inoiz saritu gabeak izan beharko dira. Lanak 40x50 zentimetroko kartulinarekin edo kartoiarekin indartuak aurkeztu beharko dira (argazkien gehienezko neurria 30x40 zentimetrokoa izan beharko da). Argazki bakoitzaren atzealdean lanaren izena azaldu beharko da. Egile bakoitzak izen berbera jarri beharko die aurkezten di-

tuen argazki guztiei. Bestalde, argazkiak hurrenkera jakin batean ikustea nahi izanez gero, zenbakituta aurkeztu beharko dira. Egilearen datuak (izena, abizenak, NAN, helbidea, e-maila eta telefonoa) kartazal itxi batean joan beharko dira, eta kartazala paketearen kanpoaldean erantsita. Kartazalean lanen lema jarri beharko da. Lanak helbide honetara bidali beharko dira: Eibarko Udala Kultura Arloa; Indalezio Ojanguren XXIX. Argazki Lehiaketa; Portalea - Bista Eder, 10. Lanak aurkezteko epea urriaren 6an amaituko da eta erabakia handik egun batzuetara, urriaren 15ean eman go dute ezagutzera.



## Merindadeetako loreen argazki-erakusketa




Flor de la abaja

Ojibayo agilagales

Barixakuaz geroztik Jose Antonio Fernandez Perezen "Flores de las Merindades. Un año de fotografía" izenburuko erakusketa ikus daiteke El Corte Ingles-ean, ekitaldi-aretoan. Barakaldoko argazkilariak izenburu bereko 220 orrialdeko liburua eman zuen argitara Burgos iparraldeko eskualdeko loreei egindako argazkiekin eta erakusketan horietako 60 bat bildu ditu. Urriaren 29ra arte egongo da argazki-bilduma ikusteko aukera, 11:00etatik 21:00etara.

## Andra marrokiarrak Aisa-rekin euskeraz

Udalak harrera linguistikoa lantzen duen AISA programa ipiniko du martxan aurten euskera ikasi nahi duten etorkin helduentzat. Urte hasieran Toyor Al Jannah kultur elkarteko zenbait emakumek euskera ikasteko interesa adierazi zuten eta udalak, Gizartekintzako Immigrazio arloa eta Udal Euskaltegiaren arteko koordinazioa sustatuz, AISA programa antolatuko du 15 emakume marrokiar horiek euskerara eta euskal kulturara hurbiltzeko. Ikastaroak urrian hasi eta 2017ko otsailean amaituko dira. Guztira 60 ordu beteko dituzte, astean egun bitan, 14:30etik 16:30era bitartean.



Ekimenak HABE-ren diru-laguntza dauka eta, horri esker, matrikulak 20 euro balio du (ikasliburuak matrikularen barruan sartzen dira). Ikastaroetan lau liburu eta bost unitate didaktiko lantzen dira -lana, familia, hiria, jantzia eta kirolak- eta oinarrizko hiztegi eleanitz bat erabiltzen dute -euskera, ingelesa, frantsesa, arabiera, bereberrera eta txinera itzultzen ditu-.

AISA ikastaroak, etorri berriak diren pertsonen zuzenduta egoteaz gain, euskeratik eta euskal kulturatik urrun daudenenentzat eta 16 urte baino gehiago dituztenentzat ere badira. Oinarrizko euskera ikasiz, euskal kulturara hurbiltzeko nahia dutenek Udalaren Gizartekintza Sailera edo Udal Euskaltegiara jo dezakete AISA programaren edizio berri bat antolatzeko.

## Sanandresak Eibarren kartel-lehiaketa

Udalaren Kultura batzordeak aurtengo Sanandresetarako kartel-lehiaketa antolatu du. Lanetan derrigorrez agertu beharko da "Sanandresak Eibarren" testua, urtearekin batera. Gaia zein koloreak norberaren aukerakoak izango dira eta kartelak 70x50 zentimetroko neurria izan beharko du. Lanak euskarri gogor baten gainean edo formatu digitalizatuko batean (JPG formatuan, 300 ppp-ko bereizmenarekin) aurkeztuko dira (ez dute lanik e-mailaz jasoko). Kartelak lemapean aurkeztuko dira. Erantsita, kartazal itxi bat eraman beharko da (kanpoaldean lema eta egilearen adina jarri; barruan, izena, abizen biak, egilearen bizilekua, telefonoa eta e-maila). Bestalde, lehiaketa honetan ezin izango dute parte hartu aurreko kartel-lehiaketetan (Ararosteak, Sanjuanak, Sanandresak) bost aldiz edo gehiagotan sarituak izan direnak. Lanak aurkezteko azken eguna urriaren 13a izango da (Pegoran). Irabazlearentzat saria 600 eurotakoa izango da. Umeentzat ere sari bi (dirurik ez) emango dituzte (10 urte arte, eta 11 eta 14 urte bitartekoentzat).



## "Makina eskua da" urriaren 2ra arte

Uztaila amaieran inauguratu zuten Armagintzaren Museoan "Makina eskua da", Donostia 2016-ko Bake-ituna proiektuari lotuta Ibon Aranberri artistak landu duen interbentzioa: armagintza ikasketetan eta hartatik eratorritakoetan eraikitako piezak urtebetez biltzen ibili eta gero, urriaren 2ra arte bisitatu daitezkeen erakusketa osatu eta, museoan modu iraunkorrean ikusgai dauden beste piezekin tartekatuta, bisitariei bi erakusketa aldi berean ikusteko aukera eskaintzen die: "Batak, museorenak berarenek, ibilbide didaktikoa egiten du, eta, armagintzari lotutako tresnak ez ezik, bestelako industria batzuetarako eginikoak ere erakusten ditu". Erakusketa martitzenetik barixakura bisitatu daiteke, 16:00etatik 20:00era eta, horrekin batera, bisita gidatuak eskainiko dituzte astero, eguenetan, museoaren ordutegiaren barruan.



## Ustekabekoak Gasteizko jaietan

Aurten berriz ere Gasteizen izan dira Ustekabe txarangakoak, Ama Zuriaren jaietan parte hartzen. Abuztuko lehen egunetan egin zuten jaiarekin bat eibartarrek eta bost egunez ederto ibili ziren kalejiran gora eta behera, kaleak euren musikarekin alaitzen. Aurtengo jaietan parte hartzeko gonbidapena Batasuna koadrilaren eskutik ailegatu zitzaizen, baina aurretik ere Gasteizko jaietan ibilitakoa da Ustekabe fanfarrea: 2004tik 2010era bitartean Los Alegrios-ekin batera jardun zuen eta beste behin Gazte Neska Blusak-ekin ere jo zuten musikari eibartarrek.

**YOKASTA** Ibarkurutze, 7  
Tel. 603 344 258

Yokasta Nails Spa **manikura-aretoa**

MANIKURA  
5€tik hasita

IRAUPEN LUZEKO  
manikura: 20 €

zurre azazkalak  
zurre espresibidea


ORDUTEGIA: 10:00-20:00

**San Andres Gozotegia**

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28  
☎ 943 20 79 73

eguraldia (EUSKALMET.NET)



## hildakoak

- Piedad Etxeberria Aranberri. 2016-VII-20.
- Roberto Bilbao Azkarate. 87 urte. 2016-VII-25.
- Mila Barrero Sarabia. 72 urte. 2016-VII-25.
- Teodosio Sarobe Beitialarrangoitia. 87 urte. 2016-VII-29.
- M<sup>a</sup> Luisa Urzelai Herrera. 92 urte. 2016-VII-31.
- Agustin Arrillaga Irastorza. 86 urte. 2016-VII-31.
- Eloy Lizaso Uriguen. 92 urte. 2016-VIII-3.
- Clotilde Baglietto Pietro. 2016-VIII-3.
- Petra Romo Altuna. 93 urte. 2016-VIII-3.
- Flora Ignacia Andresa. 93 urte. 2016-VIII-3.
- Eusebio Urteaga Azpeitia. 90 urte. 2016-VIII-3.
- Osvaldo Bustinduy Otaduy. 85 urte. 2016-VIII-5.
- Julio Egiguren Larrañaga. 77 urte. 2016-VIII-5.
- Miguel Zamakola Gantxegi. 63 urte. 2016-VIII-6.
- Francisco Blanco Corral. 80 urte. 2016-VIII-9.
- Gerardo Alberdi Madariaga. 89 urte. 2016-VIII-10.
- M<sup>a</sup> Carmen Mutiolo Aldazabal. 60 urte. 2016-VIII-11.
- Jose Luis Alberdi Zubiaurre. 71 urte. 2016-VIII-12.
- Mercedes Agirre Pagadigorria. 85 urte. 2016-VIII-12.
- David Hernandez Gonzalez. 74 urte. 2016-VIII-13.
- Dominika Urkidi Gandiaga. 95 urte. 2016-VIII-13.
- Laura Agirregomezkorta Ormaetxea. 84 urte. 2016-VIII-13.
- Enrike Alberdi Zabaleta. 50 urte. 2016-VIII-13.
- Joseba Furundarena Olariaga. 83 urte. 2016-VIII-16.
- Alberto Barruetabeña Garagarza. 82 urte. 2016-VIII-17.
- Ana M<sup>a</sup> Cruz Martikorena. 83 urte. 2016-VIII-18.
- M<sup>a</sup> Teresa Ortuoste Iraolagoitia. 86 urte. 2016-VIII-20.
- Patxi Ortiz Castaños. 75 urte. 2016-VIII-22.
- Julia Orbea Elorza. 91 urte. 2016-VIII-23.
- Josefa Seguin Salgado. 86 urte. 2016-VIII-23.
- Ines Gorrotxategi Furundarena. 92 urte. 2016-VIII-26.
- Juan Ugarte Ormaetxea. 92 urte. 2016-VIII-29.
- Adoracion Perez Lorente. 90 urte. 2016-VIII-29.
- Jose Antonio Garai Askasibar. 71 urte. 2016-VIII-29.
- Gloria Capellan Valgañon. 88 urte. 2016-VIII-30.
- Arrate Zubiaurre Aldaolea. 65 urte. 2016-VIII-31.
- Cecilio Matute Zabala. 65 urte. 2016-IX-1.
- Javier Bikandi Ugalde. 88 urte. 2016-IX-1.

## jaiotakoak

- Xabat Aranbarri De Paula. 2016-VII-19.
- Maialen Ruiz Luque. 2016-VII-19.
- Dune De los Mozos Gredilla. 2016-VII-20.
- Miguel David Rosendo Ruiz. 2016-VII-21.
- Adei Sagarzazu Argoitia. 2016-VII-24.
- Amina Tariq. 2016-VII-27.
- Gari Perez Moreira. 2016-VII-28.
- Xare Perez Moreira. 2016-VII-28.
- Adam Bensellam. 2016-VII-28.
- Eneko Cañaveras Gonzalez. 2016-VII-28.
- Juan Elduaen Irusta. 2016-VII-28.
- June Hernandez Iraola. 2016-VII-29.
- Urko Prieto Luque. 2016-VIII-5.
- Anas Jebari Benslaiman. 2016-VIII-6.
- Daniel Haya Golenko. 2016-VIII-8.
- Amets Rubio Muñoz. 2016-VIII-10.
- Lander Izagirre Aldai. 2016-VIII-12.
- Alanna Abreu Fabian. 2016-VIII-12.
- Malen Castro Merino. 2016-VIII-14.
- Ayesha Sajid. 2016-VIII-15.
- Adam Bounou. 2016-VIII-16.
- Youssef Ez Zarbough. 2016-VIII-17.
- Manex Aranbarri Basaras. 2016-VIII-18.
- Unax Aranbarri Basaras. 2016-VIII-18.
- Jon Unzetabarrenetxea Hernandez. 2016-VIII-18.
- Noa Del Collado Acuña. 2016-VIII-21.
- Nora Benslaiman. 2016-VIII-23.
- Muhammad Subhan Aslam Mazhar. 2016-VIII-25.
- Lucia Treviño Vega. 2016-VIII-29.
- Ane Agote Ramirez. 2016-VIII-29.

## farmaziak

- Martitzena 6  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Eguaztena 7  
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- Eguena 8  
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
- Barixakua 9  
EGUNEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
- Zapatua 10  
EGUNEZ **Lafuente** (Sostoatarren, 10)
- Domeka 11  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- Astelehena 12  
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
- Martitzena 13  
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- Eguaztena 14  
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- Eguena 15  
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- Barixakua 16  
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

GAUEZ BETI - 2016AN-  
Iraundegi (Calbeton, 19)

## telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea.....	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.....	943 46 46 22
Gurutze Gorria.....	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekuia.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.....	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen.....	650 26 59 63


**Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**



Zorionakkk, PEIO!!!, abuztuan 5 urteee egin zenduaz-en-eta!!! Jarraitu holan, mutil haundi. Asko maitte zaittugu.



Zorionak, NORA!, gure etxeko printzesak bi urte bete diitu-eta. Musu haundi bat famelixa guztiaren partez. Segi holan!



Zorionak, GARAZI, abuztuaren 17xan zortzi urte bete zenduaz-en-eta. Musu haundi bat, sorgintxo, etxekuen partez.



Zorionak, IKER, astelehenian lau urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat famelixaren eta, batez be, Koldoren partez.




Zorionak, NAIARA, abuztuaren 16xan 12 urte egin zenduaz-en-eta. Musu bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, HAIZEA Guruzeta Reyes, abuztuaren 20xan hiru urte egin zenduaz-en-eta. Famelixaren partez.




Zorionak, MARTINA, astelehenian sei urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat amatxo, aitatxo eta Luciaren partez.



Zorionak, EKAIN!, bixar bederatzirte beteko dozuzelako. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, LIHER, eguaztenian urtetxua egin zenduan-eta. Musu bat aitxitxa eta amamen partez.




Zorionak, ALAZNE, zure lehelengo urtebetetzian. Asko maitte zaittugu, printzesa.



Zorionak, IRATI, zapatuan zazpi urte bete zenduazelako. Etxekuen partez.



Ongi etorri, LUCIA Treviño Vega. Aitta, ama, Mikel eta Iñakiren partez.



Zorionak, MANEX (abuztuaren 8xan bi urte) eta amatxo SUSANA, urtiak bete dozuez-eta. Musu haundi bana famelixa eta lagunien partez



Ongi etorri, GARI eta XARE. Laztan goxo bat bixontzat, batez be zuen ahizta eta arreba JULERen partez.



Zorionak, MADDI eta XUBAN! Milla esker urtetxo edar hau oparitzarren! Jarraitu horren pozik, asko maitte zaittuegu-eta! Famelixaren partez.

## SUDOKUA

3				4	9		2
			8		6		5
7							4
		1		4	7		
	7		8		6		5
			9	5		4	
6							1
4		9		7			
8		3	5				6

1	6	3	8	5	7	2	9	4
4	5	8	9	2	1	3	6	7
7	2	9	6	3	4	1	5	8
3	9	1	5	4	6	7	8	2
6	4	7	2	1	8	5	3	9
5	8	2	7	9	3	4	1	6
8	1	6	4	7	5	9	2	3
9	7	5	3	8	2	6	4	1
2	3	4	1	6	9	8	7	5

AURREKOAREN  
EMAITZA

**i** Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eu** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Pisua salgai Urkizu inguruan. 3 logela, jangela-egongela, sukaldia eta 2 komun. Trastelak eta garajea. Igoailua. Eraikin berria eta eguzkitsua. Tel. 667-376212.

### 1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 660-047305.  
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Merke. Tel. 631-649850.  
 – Pisua edo logela hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 602-377921.  
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Merke. Tel. 631-649850.  
 – Pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 660-047305.  
 – Pisua alokagai Ermuan, Iparragirre kalean. Berriztua. Tel. 615-706548.  
 – Pisua behar da alokairuan. 500 eurotik behera ordaintzeko prest. Tel. 628-235319.  
 – Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. Merke. Tel. 602-120839.

### 1.3. Konpartitzeko

– Neska euskalduna pisukidea bila dabil Eibarren, konpartitzeko. Tel. 622-727777.

## 2. Motorra

### 2.1. Salgai

– Suzuki Gran Vitarra salgai. Urdina eta 2005koa. Diesel. 102.000 km. 5 ate. Beti garajejan. 9.000 euro. Tel. 628-253046.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Lokala salgai edo alokagai jubilaioagatik. Estetika zentro moduan prest. Tel. 665-344815 eta 943-702854.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Neska eskaintzen da lan egiteko. Interna. Tel. 632-309899.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita ospitalean ere. Tel. 628-318570.  
 – Emakumea eskaintzen da gauzez eta asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 636-247429.  
 – Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 632-408771.  
 – Emakumea eskaintzen da kamarera edo sukalde-laguntzaile jarduteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 671-312937.  
 – Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 689-391261.  
 – Neska eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 626-444649.

– Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 631-649850.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 660-290237.  
 – Mutil euskalduna eta arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 943-203205 eta 695-716229.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 689-003537.  
 – Emakumea eskaintzen da elkarrekin, pegoak eta bulegoak garbitzeko. Tel. 638-421827.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 689-483646.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 632-638105.  
 – Magisteritza ikasitako neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 677-539087.  
 – Geriatria formakuntza duen emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 602-810654.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-426847.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Ordutegi zabala. Tel. 675-207301.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukaldean laguntzeko. Tel. 612-425097.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 618-218355.  
 – Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako egiteko, eta baita baserrian edo mendian lan egiteko ere. Tel. 696-592539.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 602-123942.  
 – Neska eskaintzen da kamarera jarduteko, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 665-426055.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 662-012834.  
 – Emakumea eskaintzen da modista jardun eta konfekzio lanak egiteko. Tel. 632-569245.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 695-180539.  
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Ordutegi zabala. Tel. 616-457254.  
 – Emakumea eskaintzen da kamarera jarduteko eta garbiketara lanak egiteko. Tel. 600-218753.  
 – Emakume arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Erreferentziak. Tel. 631-990581.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 643-308608.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. Tel. 603-505042. Mariela.  
 – Mutila eskaintzen da edozein lanerako: nagusiak zaindu, tabernari jardun, frutadenda... Orduka eta baita gauzez ere. Tel. 612-481470.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 678-112785.  
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 631-418130.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-911709.  
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 631-986771.

## 4.2. Langile bila

– Estetizista behar da asteburuetarako Eibarko ilepaindegi batean. Manikura eta makillajean esperientziarekin. Tel. 615-795967.  
 – Soin Hezkuntzan lizentziatua kontratatuko genuke Eibarko gimnasio batean, jardun osoz. Bidalai curriculum a hiltaren 9rako: bpxport@bpxport.es  
 – Emakume euskalduna behar da nagusiak zaintzeko, etxeko lanak egin eta janariak prestatzeko. Deitu 18:00etatik 21:00etara. Tel. 629-460153.  
 – Neska euskalduna behar da umeak zaintzeko. Tel. 678-890340 eta 629-411276.  
 – Pertsona euskalduna behar da haur txikia zaintzeko, bi ordu goizez eta beste bi arratsaldez. Tel. 607-926886.  
 – Euskalduna behar da goizero hiru orduz umeak eskolara eraman eta etxeko lanetarako. Tel. 662-069109.  
 – Ilea zaintzaile profesionala behar da Eibarren. Tel. 619-928881.  
 – Kamarera eta sukalde-laguntzailea behar dira Eibarko taberna batean. Tel. 665-308025 eta 674-543564.  
 – Psikomotritzitate edo fisioterapia ezagutzak dituen pertsona behar da ume batekin lan egiteko. Tel. 615737483. idatzihona@gmail.com  
 – Esperientziadun pertsona behar da bidaiaria agentzia batean lan egiteko. Bidalai curriculum-a: admin@viatgespoblenou.com

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– DBH, Batxilergoa eta Unibertsitate mailako matematika etabar ematen dira. 1-3 ikasleko taldeak. Goizez ere bai. Tel. 677-592509. Alberto.  
 – Magisteritza ikasitako ingeleseko titulua duen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrik emateko ikasketetan laguntza behar dutenei. Tel. 663-654849.  
 – Magisteritza ikasitako EGA titulua duen neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrik emateko ikasketetan laguntza behar dutenei. Tel. 677-539087.  
 – Musika klase pertsonalizatuak ematen dituz zure etxean. Zure beharretara egokitutako metodo alaiak: biolina, pianoa, musika-hizkuntza, musikoterapia. Adin guztiak. Tel. 645-513273.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Binilozko diskoak (LP-ak eta singleak) erosten dituz. Tel. 688-624326.

## 1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

## 2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

## 3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

## 4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

## 5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

## 6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdut/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

943 20 09 18  
 publizitatea@etakitto.eu

Arrate Gaina, 4 279 Postakutxa  
943 121 262 943 127 334

# KANTABRIA

## Jatetxea

*Aukera edozein ospakizunetarako*



ARRATEKO  
SANTLUTEGIAREN

ondoan  
aurkitzen  
gara



Ezkontzak, jaunartzeak,  
bataioak, urrezko ezkontzak,  
zilarrezko ezkontzak,  
karta, enpresa bazkariak...

[www.kantabriaajatetxea.com](http://www.kantabriaajatetxea.com)



[kantabria@kantabriaajatetxea.com](mailto:kantabria@kantabriaajatetxea.com)

# Irailaren 23<sup>ra</sup> arte MATRIKULA ZABALIK

16/17  
IKASTURTEA  
UDAL  
EUSKALTEGIAK  
eusgara klaseak



LANEAN  
IKASKETETAN  
SARE SOZIALETAN  
EROSKETETAN  
KIROLA EGITEAN  
FAMILIAN  
LAGUN ARTEAN  
JAIETAN  
AISIALDIAN

## - MAILA GUZTIETA- KO

16 urtetik  
gorakoentzat

	1. MAILA		2. MAILA	3. MAILA	4. MAILA
A1	A2	B1	B2	C1	C2

- Autolkaskuntza: **Bakarkako lana, tutoretzak eta mintzasailoak** (BOGA programa)
- Etorkinentzako harrera-ikastaroak (AISA)
- Azterketa prestakuntza
- HABEko titulu ofizialak

ordutegi zabala

**TARIFA BEREZIAK:**  
**%20, %50 eta %75eko deskontua**  
**KONTSULTATU**

*Eibarko Udal Euskaltegia*

Bista Eder, 10 -PORTALEA-  
[euskaltegia@eibar.eus](mailto:euskaltegia@eibar.eus)  
Tfnoc: 943 70 09 12  
Faxa: 943 82 00 89





EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA IKERKETA SAILA



Hizkuntza Eskola Ofizialak  
Escuelas Oficiales de Idiomas

# Eibarko Hizkuntza Eskola

MATRIKULAZIO  
OFIZIALA:

**Irailaren**

**1**etik **19**ra



Matrikula on-line egin beharko da ondorengo web orrian:

[www.eoieibarheo.hezkuntza.net](http://www.eoieibarheo.hezkuntza.net)

[www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/hizkuntza-eskola-ofizialak](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/hizkuntza-eskola-ofizialak)

Ikasturte osoaren prezioa: **72,36 euro**

**DEUTSCH ENGLISH EUSKARA FRANÇAIS**

**Ikasi hizkuntzak  
eta ireki  
mundura!**

